


Uda Sakanan





Arakil ezagutzeko ibilbide sarea

Ibarrari buelta ematen dio Arakilgo Birak. Seinaleztatutako 85 km-ko ibilbide sareak ibarra ezin hobeto ezagutzeko aukera aparta ematen du. Herriak eta natura eta arkitektura ondarea ezagutzeko aparteko aukera ematen du

Alfredo Alvaro Igoa

Arakil ibarra bertatik bertara eza-gutarazten duen ibilbidea da Arakilgo Bira. Ikuspegi oparoak eskaintzen dituen ibilbidea da. Ibarretako lautadetak lursailen artean ibiltzeko aukera ematen du. Garai honetan, uzta jaso berrian, ibintzek horitutako soroak gelditzen dira. Haiekin kontraste ederra sortzen du bazkarako larreen edo artasoroen berdetasunak, baita Arakil ibaiaren ibilbidea salatzen duten txipuek ere. Urtaro bakoitzak bere kolore paleta hartzen du, sasoi guztiak bihurtuz bisitarako aitzakia. Gainera, iparrek eta hegoko mendien ikuspegiak ere badira ikusmenaren atsegingarri.

Izan ere, Aralar mendian eta Satrustegiko mendizerran sartu-irtenak egiten ditu Arakilgo Birak. Magaletako hariztiak eta pagadiak lotzen ditu bide sareak. Eta haietan

bizi den fauna aberatsaren arrastoak sumatu, hura entzun eta, zorte pixka batekin, ikusteko aukera izanen du bisitariak.

Ibarrari buelta ematen dion ibilbidea izanik, Arakilgo edozein herri bihurtu daiteke ibilaldiaren abiapuntua. Arakilgo hamabi herriek dituzte komunikazio egokiak, beraz, haietako bat aukeratu eta ibilbideari ekiteko ez dago inolako aitzakiarik. Arakilgo Birak, beraz, aukera egokia eskaintzen du, batetik edo bestetik abiatuta, hainbat ibilaldi prestatzeko eta, pitteka-pitteka, Sakana ekialdea hobeki ezagutzeko.

Arakili buelta ematen dion ibilbide nagusiaz aparte, Arakilgo Birak bere baitan ibilbide laburrak baditu ere: puntu batean hasi eta bukatzen diren ibilbide laburrak. Guztira hamaika ibilbide motz dira markatuta daudenak (mapan gorritz

adieraziak). Txango laburretarako aitzakia ederra izan daitezke guztiak.

Eta horiek nola egin? Inguruarekin kontaktu estuagoa eskaintzen duen esperientzia oinez egindako txangoa da. Eta halakoa da Arakilgo Bira. Luzeraren arabera, eskarmendun mendizaleen irteera izan daiteke, edo familia giroan egitekoa. Baina mendi bizikleta maite duen bisitariak ibar hondoko dermioko bide zabalak erabil ditzake, joan-etorriak egin eta ibarra abiadura handiagoan ezagutzeko.

Loturak

Arakilgo Birak beste hainbat ibilbiderekin bat egiten du. Horietako hiru mendi gainetara eramaten duten bideak dira eta propio seinaleztatuta daude: Irurtzundik Ergara igotzen dena (Aizkorbetik bidea laburragoa da), Urritzolatik Gazte-

lu mendira igotzen dena eta Satrustegiko portua (berdez mapan). Bestalde, Arakilgo Birak bat egiten du Irurtzunen Plazaola bide berdearekin, baita Erga magalean dagoen saien ibilbidearekin ere.

Ibarrak bi arrate ikusgarri ditu ere: Biaizpekoa, Irurtzunen, eta Oskiakoa, Errotzen. Bien ondoan Nafarroako Erresuma defendatu zuten bi gazteluren aztarnak daude: Aixita (Egiarretatik joan daiteke) eta Gaztelu (Urritzolatik gora eginda). Larraun ibaiaren eraginez sortu zen Biaizpe. Ibai horrek Urritzolan bat egiten du Sakana guztia zeharkatzen duen Arakil ibaiarekin. Izurdiaga eta Urritzola arteko paseoa aitzakia izan daiteke parajea ezagutzeko.

Etxeberritik bat egin daiteke arrantzaleen ibilbidearekin. Egiarretara joaten direnek Itxasperioko ermita erromanikoa ikusteko aukera izanen dute. San Antonio Abadeari eskainitako herriko elizan, berriz, erre-nazimenduko XVI. mendeko erre-ntaula ikusteko aukera dago. Nafarroako Gobernuak kultur interese-ko ondare izendatu du errentaula. 2011n zaharberritu zuten.

Etxarrengo elizako ate gotikoa (XIII. mendekoa omen) bisitatzearekin batera, ibar erditik dauden ikuspegi-egozatzeko aukera ematen du. Ekaireren sarreran dorretxe bat ikusteko aukera izanen du bisitariak. Zuhatzu bisitatzeko duenak ibarreko arkitek-turaren ezaugarriak ezagutzeko aukera izanen du. Satrustegi hegoaldean, berriz, txondorra bisitatzeko aukera dago. Hiriberrira sartzen den bidaiariak armariak dituzten etxe puskekin egingen du topo.

Ibarreko gainontzeko herrietan bezala, Ihabarren XVIII. eta XIX. mendeetako etxeen artean paseatzeko aukera izanen da. Herriko ihotea eta dantza bizirik mantendu dituen oihartzuna antzerki taldearenarekin nahasten da. Irañetan, bargan, Nafarroako Gobernuak natura ondare izendatutako bost haritz zahar bisita daitezke. Eta abereak nola ferratzen diren irudikatu daiteke udaletxearen atzeko aldean dagoen ferratokiarekin. Arakilgo Birako ibilbidea, bestalde, hainbat ermitaren ingurutik pasatzen da. Haiek garai bateko ibarreko herri despulatuen lekuko mutuak dira.



EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti

GIDARIDUN LEHIO BERRIAK
Mugarik gabeko estetika modernoa

Erakusketa: Olite kalea 16 · Iruñea





Askatasunez bidaiatzeko

Irurtzungo Udalak Plazaola bide berdearen ondoan autokarabanendako gunea eginen du. Halako ibilgailuan aurrera-atzera ibiltzen da Garbiñe Galartza Ezkurdia opor garaian, eta bidaiatzeko modu horren berri eman du

Alfredo Alvaro Igoa IRURTZUN

Uda, opor garaia, tokiak ezagutzeko baliatzen du jende askok. Bidaia horiek egiteko modu asko daude, eta gero eta gehiago erabiltzen denetako bat da autokarabana. Garbiñe Galartza Ezkurdiak badu halako bat. "Gurpildun ibilgailu baten gainean dagoen etxea da autokarabana. Hainbat motakoak daude, eta denetarik dute". Autokarabanek alojamendua eta garraioa eskaintzen dute. Galartzak dioenez, "abantaila da biak izatea". Berarendako "autokarabanek ematen duten onena askatasuna da".

Halako ibilgailuak gidatzeko autoen gidabaimen bera behar da. Galartzak argitu duenez, "gidatzea ez da problema, moldatzen zara". Ibilgailuek gidarien eta laguntzailearen aulkiez aparte, beste aulki batzuk ere izaten dituzte gainontzeko bidaiariendako. "Denak elkarrekin joan daitezke.

Baina inolaz ere ezin da lotara sartu eta lotan zaudela bidaiatu. Segurtasun uhalajarrira, segurtasun neurriak betez bidaiatu behar da". Eta bidaia-rietako batek komunera joan behar badu edo sukaldetik zerbait hartu nahi badu, "hobe da gelditzea eta hartu beharrekoa hartu, egin beharrekoa egin, eta berriz ere martxan jartzea".

Eta behin bidaian joanda, autokarabanistek ez dute hotel edo kanpinen bila egon beharrik, etxea gainean baitute. Autokarabanista irurtzundarrak azaldu duenez, "toki polita aurkitu, furgoneta ongi aparkatu, ohera sartu, afaldu, mendi-bueltaren ondoren garagardo freskoa hartu... Dena toki berean dugu".

"Legeak esaten du zuk kanpatzen ez baduzu, turismo baten parekoa zarela eta edozein lekutan lo egin dezakezula. Norberaren autoan

lotan gelditzearen parekoa da. Eta zer da kanpatzea? Sabai-leihoak irekitzea, aldetako leihoak irekitzea, sartzeko maila irekitzea, mahaia edo aulkiak uztea, toldoa zabaltzea..." Galartzak gaineratu duenez, "udal bakoitza mundu bat da eta bakoitzak bere interesen alde jotzen du. Hotelak, kanpina edo ordaintzeko aparkalekuak baldin baditu, esaten du ezin dela herrian gaua eman, eta isuna jarri ahal dizute". Horrekin tentuz ibili beharra dute autokarabanistek, eta herriei buruzko informazioa jaso behar izaten dute.

Guneak abiapuntu

Autokarabanen guneek, normalean, aparkatzeko lekuak izaten dituzte. Ur grisak (dutxako eta harrikoko ur zikinak) eta komun kimikoa husteko aukera ematen dute. Ur garbiz eta argindarrez hornitzeko aukera era badago autokarabanendako guneetan. Zerbitzu gehiago edo gutxiago izan ditzakete guneek. Halako tokietan egoteko mugak gunearen arabera dira. "Batzuek 48 ordu uzten dute; besteek, 76. Eta batzuetan ez dute deus jartzen. Udalaren arabera izaten da".

Guneak oinez edo bizikletan egiteko txangoen abiapuntuak dira. "Horretarako oso erosoa dira. Nahi

Campers

Egokitutako furgonetak. Arinak, erregai kontsumo txikia, espazio muga. Ez da hain nabarmena.

Kaputxinoak

Gidari kabina gainean ohe bikoitza. 7 plaza.

Perfilatuak

Kabina gainean biltegia. Oheak atzean eta egongela gainean. 5 plaza.

Integratuak

Aerodinamikoak. Kristal handia aurrean. Kabinako aulkiak barrurantz bueltatzen dira espazio bakarra sortuz.

Gordetzea, alokatzea


Prezioarekin batera, halako autokarabanen traba gordetzea da. Espazio handia behar da. Galartza zortekoa da, eta gurasoen bajera handian gordetzen du. Halakorik ez duten batzuek kalean uzten dute; bestela, pabiloiren bat alokatzen dute.

Errepidean gero eta autokarabana gehiago ikusten dira hara-hona. "Modan dagoen gauza bat da. Jendeak esaten du hotela gustatzen zaiola, baina behin probatuta, gustukoa bihurtzen da. Ematen dizun askatasunak ez du preziorik. Erosi baino lehen probatu egin behar da. Nik erostea nahiago dut, alokairuek dirutza balio dutelako. Baina urtean behin ibiltzeko bada, alokatu".

Bestetik, matxura izanez gero, betiko mekanika tailerretara eraman behar dira autokarabanak. "altzariren batean, urarekin edo arazoak izanez gero, erosi duzun etxera eraman behar da".

Irurtzunen autokarabanendako gunea eginen da. "Nik herrian halako bat jartzea aspaldi eskatzen nuen. Autokarabanistek herrian dirua utziko dute. Berri oso ona da".

+www.guaixe.eus



Ermitaz ermita, kontu kontari

Irintarrek, urtea normala izan balitz, igandean despedituko lukete ermitaz ermita egiten duten ibilbidea Aralarko santutegian. COVID-19agatik aurten ez da halakorik izan, baina ohituraz Urruntza etxeko Valentin Lakuntza Muzkizek azalpenak eman ditu

Alfredo Alvaro Igoa IRAÑETA

San Gregorio eta San Migel berri ermitak dituzte Irañetan. Garai batean, barga aldean, San Pedro martir ermita zegoen. Azken urteetan hiru toki horietara garileko azken hiru igandeetan joateko ohitura dute irintarrek. Eta errromesaldia despeditzeko, agorriko aurreneko igandean Aralarko santutegira igotzen dira eta, han, mezaren ondoren, bazkaltzen dute.

Valentin Lakuntza Muzkizek azaldu duenez, garai batean "Aszensio baino hiru egun aurreago" egiten zen, astelehenetik asteazkenera (aurten maiatzaren 21ean izan zen Aszensioa. Beti ostegunetan da).

"San Gregorio lehendabizikoa; San Migel berri asteartean eta asteazkenean joaten ginen Zabaleran, han San Pedroko ermita dago. Meza egiten genuen eta gero errogatiba. Han ez zegoen gehiago". Errogatibak uza ona etortzeko, "eta euria behar den garaian botatzeko. Halako gauzak. Badakizu, nekazaria beti eskatzen". Lakuntzak gaineratu duenez,

LEHEN ASZENSIO EGUNAREN AURREKO HIRU EGUNETAN EGITEN ZEN, ORAIN GARILEKO IGANDEETAN

"batzuetan, errogatibak egiteko, San Gregorio elizara ekartzen zen, prozesioan, euri pixka bat egiteko".

Eliz mutilak herriko gurutzea hartu, eta irintarrak haren atzetik oinez joaten ziren ermitetara, 08:00etan abiatuta. "Hasieran, kantuan joaten ginen, baina gero ez, bide handia dago-eta". Gaur egun, ermitetan badaude aulkia, "lehenago ez zeuden eta jendea zutik" egoten zen. Errogatibaren ondoren, apezarekin herrira bueltatzen ziren, "santuaren letaniak kantatzen". Behin etxean eguneroko lanekin segitzen zuten.

Aszensio festa kendu, eta garilera pasa zuten ohitura. "Agorriko lehendabiziko igandean San Mige-

lera joaten izanen dira 15 edo 16 urte. Aurretik ez zegoen ohiturarik. Horren kulpas asko nik dut. Herri guztiak joaten ziren San Migelera, eta gu ez? Hementxe bertan dauka-gu eta! Apezak ongi hartu zuen, esan zion herriari, eta herria konforme, gustura! Bere hartan bazkalduta eta, jendea gustura! Kontuketan. Han konpontzen da dena!"

Ermitaz

Herri sarreran dago San Gregorio ermita. Han hasten dute irintarrek errromesaldia. "Urtean barna, zerbait egoten bada, apaizak esaten du meza San Gregorion emanen duela". Lakuntzak jakinarazi duenez, garai batean ermita tanatorio gisa erabili zen: "kanpoan bakarren bat hil bazen, hara eramaten zuten. Lehendabiziko gaua han egiten zuen. Gainera, autopsia eta dena han egiten zen. Nik ezagutu ditut hor gutxienez bost. Orain Iruñera eramaten dute dena, hemendik eta beste lekuetatik".

San Migel berri herritik iparraldera 700 bat metrora dago. Ermitak urtean behin hartzen du irintarren bisita. San Pedro martir ermita Zabaleran dago, herritik hegoaldera 2,25 km-ra. "Dena lurrean dago. Orain basoan ematen dute meza, harizti batean. Udalak borda berria egiten zuen, oso txukuna. Eta han, itzalean, fresko-fresko, majo, han egiten da meza".

Lakuntzak azaldu digunez, Zabaleran herri txiki bat zen. "Guk bagenuen han soro bat. Nitraktorearekin lantzen ibiltzen nintzela, han ateratzen ziren sekulako harriak, ongi landuta. Baita hezurak ere! Lurra pixka bat zulatu, eta han sartu genituen. "Handik Irañetara etorri ziren bizitzera".

Zabalgo ermita garai bateko herriko eliza bazen, San Migel berri-ekin ez da gauza bera gertatzen. "Gure arbasoek esaten zuten hemengo apezpiku batek manatu zuela egitea. Ez dakit egia den ala ez. Nik hala aditu dut: 'Juandibarrereko apezpiku batek egin omen zuen' esaten zuten lehengoek. Horiak gauza horietan ez dute gezurrik esaten".

Lakuntza Urruntza etxekoa da, eta garai batean izen hori zuen herri bat bazen. Baina ermitaren arrastorik ez dago. Herritarrak Irañetara aldatzean, "hango harriak etxe hauek egiteko erabiliko zituzten. Ez dago

arrastorik ere, baina ez da harritzekoa". Irañetaren zaindaria dirudi Madalen Haitz. "Han, bizkar hartan, ermita bat zegoen. Txiki xamarra, baina oso polita; San Donato bezalaxe, bi gelatxo. Han egoten omen zen Santa Magdalena. Ermita hura ez zen erori, bota egin zuten. Hemen-go jendeak esaten du karlistek botako zutela. Hori ez da egia. Makina bat kulpa botatzen diete karlista gizajo haiei. Apezpikuren bati galdetu beharko diogu, ongi jakiteko zer pasatu zen ermita harrekin. Ihabarko elizari tokatzen omen zitzaion ermita. Galdetu nion Ihabarko apaizari, eta ez zekiela ezer esan zidan".

Aralarko aingerua

Urruntza etxean Aralarko santutegiaren eta irudiaren koadroak dauka. "Gu San Migelen Anaidikoak gara". Lakuntzak azaldu duenez, "aspaldi galdurikoa da maiatzaren 8. egunean prozesioan San Migelera etxe bakoitzeko bat joaten zenekoa. Eta Uhartea eta Arakil ibarraren erdia ere bai (Etxarren eta Ihabar bitarteko herriak. Arakilgo gainontzeko herriak beste egun batean joaten ziren. Ubeldearen alde batean edo bestean egon, horrela egiten da banaketa). Meza, errogatibak egiten zituzten Uhartea, Irañeta eta Arakil, denak batera. Bazkaldu eta han egoten ginen hizketan eta hizketan, bata bestearekin, majo".

Herrira bueltan, Irañetako bidetik zelaitxo bat zegoen. "Han prozesioa gelditu eta salto egiten genuen, nork saltatzen zuen luzeago. Haiek barreak. Apaizak ere saltatzen zuen. Han kristo guztiak saltatzen zuen. Gustura! Eta gero alkateak edo apaizak esaten zuten: beno, goazen! Eta haien atzetik, formal-formal, herrira".

Aralarko aingeruaren irudia Irañetara Trinitateko igande arratsaldean eramaten dute. "Eta astelehenean prozesioan Ergako Trinitatera joaten ginen. 11:00etarako han egoten ginen". Gehienetan etxe bakoitzeko bat joaten ziren. Aurretik bi irintar joaten zen, herritarrak iristen zirenerako baba gosaria prest izateko. Mezaren ondoren, alubiak eta etxetik eramandako ogitartekoa jaten zuten. Herrira bueltan Irurtzun, Etxarren, Zuhatzun eta Murginduetan sartzen ziren. Auzateak zituzten. Gainera, igande eta astelehen hartan afariak izaten ziren. Aingeruaren irudia hartzen zuen etxeak senide eta aldamenak bazkaltzera gonbidatzen zituen. Gero festetan bueltatzen zen gonbidapena (San Joanetan). Asteazkenean irudia santutegira igotzen zuten, Corpus egunerako.

Osorik: www.guaixe.eus

"HAN PROZESIOA GELDITU ETA SALTO EGITEN GENUEN, NORK LUZEAGO SALTATU IKUSTEKO"

IRURTZUN

UZTAILA

31 OSTIRALA

20:00 Musika parkean. Beietz taldearen kontzertua. Gernika parkean.



ABUZTUA

2 IGANDEA

20:00 Bagabiga txotxongiloak konpainiaren *Etxe sorginduren misterioa* ikuskizuna. Plazan.

4 ASTEARTEA

21:00 Gozamenek programa. *GozaBizi*: Jolasak, antzerkia eta zirkua Pantxikarekin. 12 eta 16 urte bitarteko gazteendako. Plazan.

5 ASTEAZKENA

22:00 Zinema euskaraz: *Parasitos* filmaren proiektzioa. Eskolako patioan.

9 IGANDEA

20:00 Levelibular konpainiaren *Portamundos* zirku eta antzerki ikuskizuna. Plazan.

16 IGANDEA

20:00 Zirku dabitxiren *¿Y... Pepu?* ikuskizuna. Plazan.

21 OSTIRALA

20:00 Musika parkean. Makusai eta Makalan taldeen kontzertua. Gernika parkean.

UHARTE ARAKIL

ABUZTUA

1 LARUNBATA

Ibilaldi gidatuak. Etxarri Aranazko haritz zaharrak. Izen ematea: info@mirua.com edo 608560369. Helduak 10 euro eta haurrak 8 euro.

2 IGANDEA

Ibilaldi gidatuak. Aralarko trikuharriak eta paisaiak. Izen ematea: info@mirua.com edo 608560369. Helduak 10 euro eta haurrak 8 euro.

8 LARUNBATA

Ibilaldi gidatuak. Iribasko iturburua. Izen ematea: info@mirua.com edo 608560369. Helduak 10 euro eta haurrak 8 euro.

9 IGANDEA

Ibilaldi gidatuak. Oderizko trikuharriak. Izen ematea: info@mirua.com edo 608560369. Helduak 10 euro eta haurrak 8 euro.

15 LARUNBATA

Ibilaldi gidatuak. Aralarko baso eta begiratokiak. Izen ematea: info@mirua.com edo 608560369. Helduak 10 euro eta haurrak 8 euro.

16 IGANDEA

Ibilaldi gidatuak. Etxarri Aranazko haritz zaharrak. Izen ematea: info@mirua.com edo 608560369. Helduak 10 euro eta haurrak 8 euro.

22 LARUNBATA

Izarren behaketa Aralarren. Izen ematea: info@observarelcielo.com edo 647840231. Helduak 10 euro eta haurrak doan.

23 IGANDEA

Ibilaldi gidatuak. Oderizko trikuharriak. Izen ematea: info@mirua.com edo 608560369. Helduak 10 euro eta haurrak 8 euro.

29 LARUNBATA

Ibilaldi gidatuak. Iribasko iturburua. Izen ematea: info@mirua.com edo 608560369. Helduak 10 euro eta haurrak 8 euro.

30 IGANDEA

Ibilaldi gidatuak. Aralarko trikuharriak eta paisaiak. Izen ematea: info@mirua.com edo 608560369. Helduak 10 euro eta haurrak 8 euro.



Ekintzak Sakanan



Shinrin Yoku Sakanan

Asteko egun guztietan
10:00etatik 13:00etara

Baso bati bisita egingo diogu, bost zentzuekin murgilduz. Osasun onurak lortu ahal izateko.

Gutxienez 2 pertsona, gehienez 10 pertsona - Etxarri Aranatz



Kalesan ibilbidea

Asteko egun guztietan
19:00etatik 20:00etara

Zaldiz egingo dugun ibilbidea, gure inguruaz gozatuz Bikoteentzat Cava botila

Gutxienez 2 pertsona, gehienez 6 pertsona - Hiriberri Arakil



Yoga Naturan

Larunbata eta igandeetan goizez
10:00etatik 12:00etara

Naturaz gozatu

Gutxienez 2 pertsona, gehienez 12 pertsona - Altsasu



Gure artzaiak ezagutu

Asteko egun guztietan
Ordutegiak kontsultatu

Gure gaztak nola egiten diren jakin nahi duzu?

Gutxienez 2 pertsona, gehienez 12 pertsona



Argazkilaritza tailerra naturan

Gutxienez 2 pertsona, gehienez 10 pertsona

Trteerak:

-Garagardo artisauen lantegiak

-Getariako txakolindegia

-Irunberriko upategi ekologikoa



650 02 36 98

goazensakana@gmail.com

www.goazensakana.com





Artzainen festa eguna

53. Artzai Eguna izan behar zen aurtengoa, baina 2020an ez da horrelakorik izanen. Aralar Mendi elkarteak antolatzen du artzainen festa, eta dagoeneko datorren urtekoari begira jarri da elkarteak

Eneida C. M. eta Erkuden R. B.

Zuriñe Beltza Uharte Arakilgo Aralar Mendi elkarteak kidea da, eta Artzain Eguna antolatzen duen taldearen dago. Koronabirusak eragindako urte honetan, "pena handiarekin" festa bertan behera uztea erabaki zuten. Abuztuaren 30ean ospatu behar zen. "Festa nahiko handia da, eta egunean bertan lehiaketa asko daude. Ikusten genuen ez genuela ezertarako ziurtasunik". Etorkizunera begira jarri dira orain, "alde ona ikusi" nahi diote: "aurten, gure helburua hausnartzea izango da:

zer egin dugun ikusi, zer egingo dugun pentsatu, eta gauza gehiago nola sartu pentsatu. Artxibo kontua ere hor dugu beti, ez dakigula eskua nola sartu. Hori ere landuko dugu".

Aralar Mendi elkarteak antolatzen du Artzain Eguna. "Bazkideok auzolanean egiten dugu. Gutxi gorabehera 280 bazkide gara, eta denborarekin jendea aldatzen joan da". Bazkideak ez ezik, herri osoa ere inplikatzeko da eguna aurrera eramaten: "800 biztanle gara, eta ia 300 pertsonak parte hartzen dugu festan". Herriarendako oso festa garrantzi-

tsua dela esan du Beltzak. "Lehenengo Artzain Egunean lehiaketa bakarra egon zen, Artzai txakur lehiaketa zegoen bakarrik. Gauza asko sortzen joan dira urte hauetan". Gaur egun, artzai txakur lehiaketa, gazta lehiaketa, ardi moztailen lehiaketa, latxa arrazako esnearen lehiaketa.... "Askok daude". Eta hori guztia antolatu behar da.

Berrikuntzak

Aralar Mendi elkarteak zuzendaritza batzorde bat du, bi urtetik berritzen dena, eta nolabait elkartearen

motorra dena. Artzai Eguna antolatzen duen taldearen "espresuki" bideratuta dagoen batzorde bat dago. Beltza 2014. urtean sartu zen elkartearen eta festa antolatzen duen taldearen batzordean. "10 pertsona gaude, eta ez da aldatzen. Boluntarioa da, eta konpromiso pixka bat gehiago eskatzen du". Hilabetero biltzen dira, eta apirilaren hasten dira abuztuaren azken igandean ospatzen den festa prestatzen. "Hasieran ikusten ez diren lanak egiten ditugu: dirulaguntzak bilatu, babesleak...". Ondoren, lantaldeak sortzen eta jendea deitzen hasten dira. Orduan, astero biltzen hasten dira.

53 urte pasa dira lehenengo Artzain Eguna ospatu zenetik, eta, beraz, normalena da belaunaldi aldaketa egon izana. "Gure asmoa izan da festa gehiago zabaltzea. Adibidez, teknologia berriak sartu ditugu, babesle gehiago bilatu ditugu eta gustuarekin egin dugu,

beraiekin lan egiten hasi gara...". Sare sozialetan ere hasi dira azken urteetan, eta egunaren aurretik jardunaldiak ere egiten dituzte. "Artzaintzaren mundua eta Artzain Eguna gehiago zabaltzeko". Jendeak sare sozialetan egotea eskertzen duela aipatu du Beltzak. Egunean egiten diren omenaldiak ere "berritzen" saiatu dira, eta lehen "artzaintzarekin lotura zuen norbait hiltzen bazen, berari omenaldia egiten zitzaion. Orain, izango den hurrengoan jarri dugu fokua". Aurrera begira ari dira. Izan ere, Beltzak gehitu duenez, "denok ezagutzen dugu Artzain Eguna, denak egon gara, baina urtero zerbait berria izatea nahi dugu".

Artzaintza

Uharte Arakilek eta artzaintzak harreman zuzena izan dute "betidanik". Artzain Egunean, gainera, Nafarroako artzainen herria bihurtzen da. "Beraieendako festa eguna da. Urtean zehar dituzten jaiegun bakarrenetakoa da. Oso gustuko dute, eta egutegian markatuta duten eguna da". Oso garrantzitsua da. Artzain Egunean, gutxi gorabehera, 5000 pertsona hurbiltzen dira Uharte Arakileren. "50. urteurrenean gorena izan zen, eta 8000 pertsona izan ziren". Artzainendako ez ezik, Uharterendako egun oso handia da ere.

"Dudarik gabe, kolpe latza izango da". Alde batetik, ostalaritzak nabaritutako du aurtengo ez dela Artzain Eguna izango, Beltzak azaldu duenez. "Egun hori oso garrantzitsua da". Bestetik, artzainendako ere, "dudarik gabe" zaila izango da. "Festa da, eta, gainera, feria eta azoka izaten dira ere. Ikusgarria da. Gaztaren feria dago ere, eta Nafarroako gazte hoberena aukeratzen da". Salmenta asko egiten dira bertan. Eguna ez ospatzeagatik inork ez duela "behea joko" aipatu du Beltzak, baina "oso garrantzitsua" dela gaineratu du.

- BEROKUNTZA - NEKAZARITZA -
- AUTOMOTIOA -

Lakuntza

Etxera eramateko
gasoleoa

Alberto Iriarte

948 576 016 - 609 421 680

Aliprox

948 576 246

Larrañeta z/g

LAKUNTZA

OGI BERRI

APUR LAKUNTZA

Mikel Arregi 7 · Lakuntza

669 426 335

iratxxo@hotmail.com

ARALAR

- FERRETERIA - BORDINERIA -

SARRAILAGINTZA

24 H

Uriz, 18 - behea

LAKUNTZA

T. 948 46 48 06

administracion@aralarferreteria.com

"Ezkilak sistema automatikoarekin entzuten ditudanean, pena ematen dit"

TOMAS GANBOA GANBOA ARRUAZUKO EZKILA JOTZAILEA

Arruazuko ezkilak famatu egin zituen Argiñenean sortutako Tomas Ganboa ezkila-jotzaile ezagunak. Makina bat txapelketa irabazi izan ditu, eta Nafarroako Ezkilazainen Elkartek ohorezko presidente izendatu zuen. Iktus bat sufritu eta gero, gelditu behar izan du

Maidet Betelu Ganboa

Noiz hasi zinen ezkilak jotzen?

Hemengo sakristaua eta ezkila jotzailea, Tximoonen Pedro Arratibel, Iruñera joan zen bizitzera, eta hark nire aita animatu zuen sakristau jartzeko. Aitak ardura hartu, eta ni ezkilak jotzen hasi nintzen, 18 urte nituela. Bakarrik hasi nintzen ezkilak jotzen; ez nuen irakaslerik izan. Errepikak belarriz ikasi zenituen ala zuk berriak sortu dituzu?

Lehengokoak imitatzen saiatu nintzen, baina errepiken konbinazioak eta erritmoak nireak dira. Esanen nuke jotzen ditudanetatik %80 inguru nik sortutakoak direla eta gainontzekoa entzunez edo belarriz. Batetik, difuntuen, suarena, meza deitzeko eta bezperetako errepikak daude. Beste errepika batzuk bereziagoak dira, zeremonia ukitua dute, esaterako Gabonetan, Corpus egunean, San Migel aingerua etortzen zenean, San Pedro ermitatik jaistean eta halakoetan jotzen direnak. Lehen errogatiba asko egiten ziren, prozesioak... beti ezkilak jotzen.

Ezkilak jotzea zaila da?

Kirolean bezala, asko entrenatu behar da. Ni orain joango banintz, erdia ez litzaidake ongi aterako. Bere zailtasuna badu; 12-15 konbinazio diferente dauzkat, eta batetik bestera pasatzen joaten naiz. Baten bat galtzen baduzu, erritmoa galtzen duzu. Ezkila delikatua da; ezkila guztiek soinu ezberdina dute, eta ezkila-mihia nola kokatzen duzun, zein distantziatara, soka nola tenkatzen duzun... badu berea.

Nola jotzen dituzu ezkilak, mihia helduta ala soka sistemaren bidez?

Soka sistemaren bidez. Erosoago iruditzen zait, eta soinu konbinazioak egiteko hobe da. Mihia helduta, pulstuan jotzen denean, erritmoa ia bera da: "tin-tan, tin-tan...". Baina nik egiten dut gora jo eta paun, behe-ra jo eta paun, ezkerrekin berriz ere tenkatu eta beste soinu bat... askoz ere soinu gehiago sortzen dira horrela. Sistema honen bidez jotzea kosta egiten da. Sokak ongi jartzen jakitea ezinbestekoa da. Soka lodi samarra izatea komeni da, eskuetan poliki sar dadila. Ezkilen mihia soka gantxo batekin lotzen zaio, eta gero atzealdean dagoen zur bati edo egon ahal denari lotu behar zaio. Baina milimetrora tenkatu behar da soka. Laso jartzen baduzu, gaizki; baina estuegi jartzen baduzu, okerrago. Neurrian.

Zenbat ezkila daude Arruazun?

Bi ezkila handi. Goian ezkila txiki bat dago, baina hori haur txikiak hiltzen zirenean erabiltzen omen zen. Erlojuak jotzen du ezkila txiki hori.

Arruazuko ezkilak soinu fina dute beste batzuekin alderatuta.

Onak dira jotzeko, eta doinu fina da. Ezkila bakoitza mundu bat da; soinu ezberdina da, guztiz. Eta ezkila dorreak ere eragina du. Leku guztietan ez dago soka jotzeko toki egokirik.

1967an eta 1968an Ihabarko Txapelketa irabazi zenuen.

Ezkilak jotzen 8 edo 10 urte neramatzan Ihabarren Ezkila Jotze Txapelketa Nazionala egin zutenean.

Animatu nintzen, 15 partaide inguru geunden, tartean bizkaitarrak, Lizarra aldekoak, inguru honetako sakristauak eta ni. Sokak lotuta nola zeuden ikusi, jotzen hasi eta lehen-dabizikoa izan nintzen. Batzuek esaten zidaten Arratibel egon balitz ez nuela irabaziko, baina hurrengo urteko txapelketara Arratibel etorri zen. Sokak ongi jarri, jo, eta Ihabarko apaizak eskuko atzamara jaso zuen, irabazi nuela azalduz.

Ondoren Arruazuko Ezkila Jotze Txapelketak jokatu ziren, eta hor nagusi izan zinen.

Ihabarko apaiza istripuz hil zen, eta bertako txapelketak bertan behera geratu ziren. Urte batzuk pasatuta, Iturgain elkarteak Arruazun txapelketa antolatzea erabaki zuen. 10 urte inguru egin ziren. 10-15 ezkila-jotzaile aritzen ginen, eta ia urtero nik irabazten nituen. Jendeak esaten zidan, txantxan, herritarra nintzela, eta, horregatik, penalizazioen bat jarri beharko lidaketela. Sariak, dantzaldia... azkenean dirua zen elkartearendako, eta antolatzeari utzi zioten. Huitzin eta Lekunberrin ere txapelketak atera nituen, eta epaimahaietan ere ibilia naiz.

Toki gehiagotan jo duzu?

Herri askotan. Lekunberritik hots egin zidaten, Iurretatik... Iurretara joan, eta ezkilak zulatuta zeuden, gerran balek utzitako arrastoak. Behin, Elizondoko frontoian plataforma bat jarri zuten, eta bertan bi ezkila. Boxeo ringean bezala, erdi-erdian jarri, eta han aritu nintzen ezkilak jotzen. Dotore atera zen.



Amurrión urtero erakustaldia egiten zen, beste behin Zegamara joan ginen omenaldi bat egitera, eta Iruñeko katedralean ere jo izan dut.

Norbait etorri zaizu ezkilak jotzen irakasteko eskatzen?

Denboraldi batean, Lizarragako mutil bat etorri zen, baina gero utzi zuen. Arruazun, Jokin Lanz ere ibili zen, baina utzi egin zuen. Aretxabaletan mutil bat hasi da nire estiloan ezkilak jotzen, baina kosta egiten da. Borondatez jotzen dira ezkilak, festa egunetan bereziki. Errepika herri guztian eta herritik kanpo entzuten da. Behin ehiztari batek esan zidan ehizan zegoela entzuten ninduela.

Iktusa izan zenuen duela bi urte, eta ordutik ez zara apenas aritzen. Eskailerak jaistean gaizki ibiltzen naiz, txoratu egiten naiz. Gabonetan

lagun batek lagunduta igo nintzen, hori da jo nuen azken aldia.

Jotzeari utzi zenionetik sistema automatiko bat jarri dute. Zer sentitzen duzu hori entzutean?

Pena. Beti doinu bera errepikatzen du; poztasuna beharrean, tristura ematen dit. Pentsatzen dut "ño, ni goien banio...".

Nafarroako Ezkilazainen Elkarteko azken topaketa iaz egin zenuten, Lakuntzan, eta sekulako omenaldia egin zizuten: ohorezko presidente izendatu zintuzten, txapel eta guzti. Bai, oso eskertuta nago. Hunkigarria izan zen, jendea bikain portatu zen. Errepiketa jo nuen: soka sistemaren bidez jotzeko ongi prestatu zuten ezkila dorrea, Lakuntzan mihiei helduta jotzen baitira bi ezkila handiak. Txukun atera zen.

Elkarrizketa osoa: www.guaixe.eus

GHB BARRA

Galdaragintza
erdiko eta arina

Sarrate Industrialdea, Lakuntza
948 464 848
<http://www.ibarga.com>

KALE TXIKI TABERNA

Eguneko menua
11,90€
Asteburuko menua
25,00€

Lakuntza 948 57 60 09

LagunArtea
taberna

Lakuntza

NEREA
ILEAPAINDEGIA

NEREA BAKAIKOA
Ermifeta kalea 4 • 948 576 331
LAKUNTZA

TANIA
ARRAINDEGIA

948 576 300
Mikel Arregi 6
LAKUNTZA

www.pescaderiatania.com

f i



Lakuntzako Pertza eguna, istorio zaharra erromeria bilakatuta

Lakuntzako Pertza elkarteak 1967 urtean antolatu zuen lehenengoz Lakuntzako Pertza eguna, antzina gertatu omen zen istorio bati aitortza eginez. Aurten ezin da festa antolatu, baina ekitaldi sinbolikoren bat egitea du buruan juntak

Maider Betelu Ganboa

Lakuntzako Pertza elkarteak maki-na bat ekimen antolatzen ditu, baina, akaso, ezagunena Lakuntzako Pertza erromeria da. "Elkartea 1966 urtean sortu zuten herriko gazte batzuek. Hurrengo urtean, 1967an, lehendabiziko Lakuntzako Pertza eguna antolatu zuten" azaldu du elkarteke egungo presidente Mike-latxo Flores Arregik.

Istorioren zaharra oinarri

Elkartearen izena ez da kasualitatekoa; istorio zahar batean oinarrituta dago. "Lakuntzarrek betidanik izan dute San Migelera igotzeko ohitura. Uda mendian pasatzen zuten, negurako egurra egiten.

Hala entzun dut nik etxean. Lan guztiak egin ondoren, nolabait ospatu beharra zegoen, eta San Migel santutegian egiten zen Asulbizio egunean ospatzen zuten. Asulbizio eguna bekatuak barkatzeko ekitaldia zen, eta elizkizun haietara igotzen ziren San Migelera. Nonbait, Asulbizio egunera joaten edo mendira egurra egitera joaten gertatu omen zen lakuntzarrei pertza erori zitzaizkion istorioa" aipatu du Mikelatxok.

Lakuntzako etxe guztietan kontatzen da pertzaren pasadizoa. "Ez dakigu gertatu zen ala ez, baina istorioak dio behin lakuntzar talde bat San Migelera zihoala. Tripotaz betetako pertza zeramaten asto

gainean, eguna mendian emateko. Nonbait, astoa irristatu, eta pertza erori zen. Zarata entzunda, Uharte Arakilgo erroteria bidera atera zen, pertzak hura jo eta begia galdu zuen. Eta ordutik burla egiten zieten lakuntzarrei. "Lakuntzako pertzak ze fin ein zuben?" galdetzen zieten" kontatu du presidenteak. Erantzuna ondokoa zen: "Zuben aittek eta amak ein zubiena".

Elkartea egin zenean, ez zuten zalantzarik izan: Lakuntzako Pertza izena jarri zioten, burlari buelta emateko. Eta hurrengo urtean erromeria antolatzen hasi ziren, asto, tripota, pertz eta guzti. Erromeria Ama Birjina egunaren ondorengo igandean izaten da.

Erromeria

Lakuntzako Pertza egunean, goizeko 06:00etan suziria bota, eta San Migel aldera abiatzen dira lakuntzarrak, astoarekin. Adin guztietako jende mordo joaten da. "Goizago ateratzen dira boluntarioak, bide erdian, garai batean pertza famatua erori zen tokian, sua prestatzera. Izan ere, bertan atsedenaldia egin, eta lehendabiziko tripota erreak jaten dira. Boluntario asko aritzen dira lanean, ixil-ixil, gainontzekook festaz goza dezagun" dio Mikelatxok. Geldialdia egin eta gero, San Migelera igotzen da, eta 11:00etan meza izaten da. Bitartean, elkarteke juntako kideak eta boluntarioak tripotak erretzen hasten dira. Lehen kobrezko pertza erraldoietan egosten ziren tripotak, aterpean, baina santutegiko jatetxean eta aterpean obra egin zenean, aldaketa agin zen. Javier Anduezak parrilla erraldoi bat prestatu zuen egun horretarako propio, eta, ordutik, tripota erreak prestatzen dira. Mezatik ateratzean dastatzen dira. "225 kilo tripota eta 100 litro ardo inguru erosten dira. Bezperan, adinduei eta gaixo daudenei etxean banatzen zaie tripota; izugarri eskertzen dute. Hasieran, Ziordian prestatzen zuten, baina duela urte askotatik Lakuntzako Arregi harategiak prestatzen du. Gustura jaten da tripota egun horretan, zapore berezia hartzen du" dio Mikelatxok.

Tripotarekin batera, astoa da festako protagonista. Hasieran Martin artzainaren astoak eramaten zituen tripotak. "Lanera ohitua zen astoa zen, eta egunean bertan hartuta, erromeriara joaten ziren. Baina hura hil eta gero, kanpotik astoak ekartzen hasi ziren, eta noizbait arazoak egon izan ziren, astoak ez zeudelako halako lanbideetara ohituta, eta kosta egiten zen goraino itzotzea. Duela urte batzuetatik

hona, boluntario batek astoa zaindu eta entrenatu egiten du, erromeriarako propio. Astoa beti eraman behar da ahalik eta zelaia, bera ongi ibiltzeko, eta, ahal izanez gero, itzaletik" aipatu du presidenteak.

Lakuntzako Pertza dantzak

Tripotak banatuta, Biltoki gazte elkarteke Lakuntzako Pertza dantzak dantzatzeko dituzte, Jon Oñatibia oiartzuarrak sortutakoak. "Garai haietan Diputazioak euskara klaseak antolatzen zituen Iruñean; lakuntzar batzuk ikastaro horietara joan ziren. Han, Ion Oñatibia irakaslea ezagutu zuten. Lakuntzako Pertza erromeriaren berri eman, eta festa ezagutzera etorri zen. Eta orduan bururatu omen zitzaion festa honek dantza batzuk behar zituela, eta berak sortu zituen dantzaren zatiak: Makila-dantza, Era, Pertzaren Iraultzea eta Biribilketa. Lakuntzara etorri zen, 1977 urte inguruan Biltokikoei erakutsi zizkien, eta urte horretako erromerian dantzatu zituzten. Oñatibia berak jo zuen txistua. Ordutik Biltokioek dantzatzeko dituzte. Dantzak giro polita sortzen du, jende guztia animatzen da dantzara" nabarmentzen du Mikelatxok.

Aurtengoa, sinbolikoa

Dantzen ondoren, Guardetxera hurbiltzen dira lakuntzarrak, bazkaltzera. Dantzaldia izaten da. Handik jaitsi eta herrian jarraitzen du festak, plazako dantzaldiarekin. "Egun polita izaten da; festen aurreko kutsua du, hurrengo astean festak hasten direlako. Tamalez, eta pena handiarekin, aurten ezingo dugu festa ospatu. Lehendabiziko aldia izango da 1967tik, baina osasuna da garrantzitsua. Aurten aztertzen ari gara zerbait sinbolikoa egitea, elkarteke, tripotak eta herria elementuak kontuan hartuta" azaldu du presidenteak.





FEDERACIÓN
NAVARRA
DE CICLISMO

NAFARROAKO
TXIRRINDULARITZA
FEDERAZIOA

Txirrindularitza gustuko duzu?

8 urte baino gehiago badauzkazu, garaiz zaude.

Izena eman!

Federazioan (948 21 14 95) edo zure gertuko taldean informa zaitez



**Ezkerretik eskubira,
Ane Gomez, Rosana
Alba eta Ixone Zubietta.**

Asko dira udako oporrak bailaran pasatzera etortzen diren bisitariak. Natura, kokapen estrategikoa, giro euskalduna eta lasaitasuna bilatzen dute Arbizuko Ekokanpinean dauden kanpindarrek

Oporrak disfrutatzeko modu asko daude, eta bidaiatzeko orduan ere gustu guztietarako ostatuak daude. Sakanan hiru kanpin daude, eta horietan bailarak eskaintzen duen esperientzia errepikatzerara urtero etortzen diren bisitariak daude. Kanpindarrak dira. Ixone Zubieta Urrikoetxeak, Ane Gomez Zabalak eta Rosana Alba Aresek Arbizuko Ekokanpinean pasatzen dituzte udako oporrak. Hirurak bizkaitarrak dira: Zubieta Bilbotik gertu dagoen herri batekoa da. Gomezek eta Albak Arbizuko kanpinean ezagutu zuten elkar, eta lagunak egin ziren; kasualitatez, Bilboko auzo berean bizi dira. Urtean zehar asteburuetan ere etortzen dira Sakanara.

Haurrendako ere leku izugarria dela esan dute. Alba: "Beste giro bat

Hiru kanpindarrendako, haurrak izatea izan da oporrak Arbizuko Ekokanpinean pasatzeko arrazoietakotat. Duela zazpi urte inguru aukeratu zuten kanpina oporretako norakobezala, haurrak txikiak zirela. Zubietaren kasuan, alaba zaharrenak urtebat bete behar zuten; Gomezen kasuan, sei hilabete zituen; eta Albaren kasuan, hiru urte. Haurrak kanpinean hazi direla esan daiteke.

Ingurugiroa, natura, mendia, leku lasaia, giro euskalduna eta kokapena goraipatu dituzte hiru bizkaitarrak. "Edozein plan egin daiteke. Sakanan txokonda ere, Nafarroako edozein txokotara joan daiteke, Gipuzkoara... Erdian gaude.", azaldu du Zubietak. Batez ere giro euskal-

Kanpinek idatzti gabeko kodeak dituzte, kanpindarrek eta kanpinzaleek bakarrik ezagutzen dituztenak, eta harremanak eta lagunak egitea erraza da, "nahi baduzu, lagunak egiten dituzu; eta nahi ez baduzu, ez". Zubietaren familiaren kasuan, Jaengo familia batekin harreman oso ona izan zuten. "Kanpinean batera egoteko hartzen genituen oporrak. Aurten ezin izan dira etorri. Pentsa, Arbizura etorri eta Jaengo familia baten lagunak egin". Hala ere, Whatssapp bidez kanpinaren egunerokotasunaren berri ematen diela esan du Zubietak. Haurrendako ere lagunak egitea oso erraza dela esan dute. Albaren kasuan, bere alabak hamalau urte ditu eta "kuadrilla izugarri handia" du. "Bakarrik ibiltzen dira, igerilekuan, kanpinean...".

 **BIKAIN**
GARAJEA, S.A.
948 460 037 Arbizu
948 468 441 Altasu

**Auto berri eta
bigarren eskukoak
SALMENTA**

**Mekanika
Elektrizitatea
Txapa
Margotzea**

Enviados a domicilio

Fiori FLORES S.L.

Alcalá de Henares Ind. Arbizu
948 460 499
Nuestro negocio también es su negocio

Iraunkorrak eta kalitatezkoak
Material naturalak,
toxikorik gabekoak
Opari bikain etxeko
txikienentzat



Plastikorik
gabekoa

**Haur txikien
jolaserako bereziki
diseinatuta
dauden objektuak**

LAKUNTZA

UZTAILA

31 OSTIRALA

20:00 Azken ostirala: Euskal presoak, Euskal Herrira elkarretaratzea. Plazan.



ABUZTUA

1 LARUNBATA

16:00 Eskolen arteko txirrindularitza lasterketa. Sakana Group-Aralar taldeak antolatuta. Plazan.



17 ASTELEHENA / 21 OSTIRALA

09:00-14:00 Lakuntzako Futbol Campusa 2008/2015 artean jaiotako haurrendako. Lagun Artea Kirol Elkartek eta Lakuntzako Udalak antolatuta. Sari sorpresak izanen dira. Zeila Berrin.

25 ASTEARTEA

16:00 Kadeteen mailako Lakuntzako Sakana Fundazio Sari Nagusi. Sakana Group-Aralar taldeak antolatuta. Plazan.

28 OSTIRALA

22:00 Azken ostirala: Euskal presoak, Euskal Herrira elkarretaratzea. Plazan.

ARBIZU

UZTAILA

31 OSTIRALA

20:00 Azken ostirala: Euskal presoak, Euskal Herrira elkarretaratzea. Plazan.

ABUZTUA

7 OSTIRALA

20:00 Euskal presoak, Euskal Herrira elkarretaratzea. Plazan.

8 LARUNBATA

17:30 Haurrendako antzerkia eta Arbizuko trikitilariak. Plazan.

14 OSTIRALA

20:00 Euskal presoak, Euskal Herrira elkarretaratzea. Plazan.

21 OSTIRALA

20:00 Euskal presoak, Euskal Herrira elkarretaratzea. Plazan.

22 LARUNBATA

Ur festa eta talde sorpresa.

28 OSTIRALA

20:00 Azken ostirala: Euskal presoak, Euskal Herrira elkarretaratzea. Plazan.



29 LARUNBATA

19:30 Bulego taldearen kontzertua. Plazan.



*Elkar zainduz
zurrumurrurik gabe
askoz hobe*



ANITZARTEAN



Ergoienara bueltan etorriak

Askok "herria" dute. Familiaren sorlekuarekin harremana mantentzen duten pertsonak dira, aldian behin "herrira" bueltatzen direnak. "Herriari" bizitasuna ematen diote, jendarteko harremanak handitzen baitira sasoi horietan. Udan, esaterako

Eneida C.M. / Alfredo A.I. ERGOIENA
Ergoienan dute "herria" gure hiru elkarriketatuek. Gotzon Auzmendik Garmendia Ataunen jaio zen eta Ordiziara ezkondu zen. "Orain egunen %50 Ordizian ematen dut eta beste %50 Unanun". Auzmendiren emaztearen jaioterria da Unanu eta "hortik hasi zen herriarekin lotura". Anaxorena etxeokak dira. Eraikina berritua dute gainera. Iosune Ameztot Etxarriren gurasoak lizaratarrak ziren. "Ni hiru urte eta erdira arte Lizarragan bizi izan nintzen". Gaur egun, Bilbon bizi da Ameztot. Ama eta ahizparekin etorri da uda pasatzera. Donostiako lehengusua ere etxean da. Ume txikiak dituen lehengusua aurki etorriko da. Kalekoa da haien etxearen izena. Hiruetan gasteetan da.

Haizea Lizarraga Arellano. Antsoain eta Dorrao artean ibiltzen da. "Aitona-amonak dorrobarrak ziren. Osabak eta aitak herrira joaten jarraitu dute. Etxe bat egin genuen. Asteburuetan, udan eta neguan

etortzen gara". Etxeondo izena du haien etxeak. Eta beraiek ez daude nean, landa-etxe bihurtzen dute.

Lizarragak azaldu duenez, udaz gain asteburuetan ere joaten da Dorraora. "Orain hainbeste ez, ikastolaz kanpo kirola egiten baitut, eta denbora behar da horretarako. Baina, txikitan, asteburu etortzen ginen". Antsoaindik ordu erdi eskasera egonda, Dorraora etortzeko batere alferkeriarik ez du izaten. Auzmendik azaldu duenez, "gu jubilatuta gaude. Ostegunetik astelehenera Unanura etortzen gara. Eta astelehenera ostegun arte Ordizian egoten gara. Han ere badugu familia, eta partekatu behar dugu. Gainera, gertu dugu Unanu; Ordizian

"HONA ETORTZEAK EZ DIGU INOLAKO ALFERKERIARIK SORTZEN. GUSTURA ETORTZEN GARA"

ziatik hona segituan sartzen gara. Aste bukaeretan hona etortzeak ez digu inongo alferkeriarik sortzen. Egokitutako etxea dugu, eta gustura etortzen gara". Ameztotik uda guztia ematen du Lizarragan. "Bakarrik udan etortzen gara. Asteburuetan-eta, ez. Etxe zaharra dugu. Ez dugu berogailurik. Gu neguan etortzeko ez dago prestatuta. Horregatik, beti udan etortzen gara, urtero".

Arrazoiak

Oporrak Ergoienan pasatzearen zergatiak galdetuta, Ameztotoren oporretarako hautua Lizarraga da, "guretako oso berezia delako. Haurtzaroa pasa dugu hemen. Gaztaroa. Gazte ginela Lakuntzako, Dorraoko, Arbizuko festetara joaten ginen. Barreak. Goizaldeko ordu biak edo hirurakarteko elkarriketak. Hemen dago gure arima". Gaineratu duenez, "hemen dena dugu: lehengusuak etortzen direla, kantatzen aritzen garela... Hain dugu maite mundu-

ko beste inon ez ginatekeela hain gustura egonen. Familia da. Goxotasuna da. Urtero etortzen gara, etxea hemen dugulako. Asko maite dugu etxea, giroa, dena". Eta gaineratu du: "nire semeak handitu dira. Etorri izan dira, plazan gozatu izan dute. Gure bihotza hemen dago".

Auzmendik "lasaitasuna" nabarmendu du. Bere koinataren familiarekin bizi da Unanun. "Eta gero lagunarte on bat egin da eta primeran egoten gara hemen. Ez gara asko. Baina garenok egunero elkartzen gara elkartean. Gure tertulia txoak eta afariren bat edo beste ere tokatzen da. Gustura etortzen gara".

Lizarragari "Dorraok espazioa ematen" dio, "Iruñeaz pitte bat ahazteko. Mendia. Dorraoko kuadrilla ez da egunero ikusten ditudan pertsonak. Bi kuadrilla izatea oso ongi dago. Niri asko gustatzen zait pertsona batzuk ezagutzea, eta oso gustura". Alde praktikoari ere begiratu dio: "etxe bat dugu, eta joateko toki erraza da".

Hartu

Herriak zer ematen dien galdetuta, Lizarragak Ameztotiri "lasaitasuna, familia, babesa" ematen dizkio. "Mundua gerran egon daiteke, baina hemen dena familia denez... Lehengusua etortzen da eta lagun-tzen digu. Etortzen da... Niretako

"HAIN DUGU MAITE, MUNDUKO BESTE INON EZ GINATEKEELA HAIN GUSTURA EGONEN"

babesa da. Gustura egotea. Etxera bueltatzea". Eta nabarmendu "paisaia miresgarria" dela. Lizarragak ziurtatu duenez, "Dorraon beti oso ongi pasatzen dugu". Auzmendik aitortu duenez, "mendiak betetzen nau gehien. Hemen daukagun mendi honek berealdiko xarma dauka orain. Atletismoan ibili naiz eta oraindik ere pixka bat ibiltzen naiz. Eta hemen berealdiko soltura daukat kirol hori egiteko".



Hala ere, udaren eta neguaren arteko alderaketa egin nahi izan du: "negu partean tristeagoa izaten da, eguraldiagatik eta jende gutxiago egoten delako. Baina udaberri-uda aldera jende gehiago arrimatzen da". Lizarragak jakinarazi duenez, gazteek badute non bildu Dorraon: "Itur aldea elkartearen azpian gazetxe moduko bat egin ziguten, eta neguan, eta hotz handia egiten duen momentuetan hara joaten gara". Etorkizunean, elkarteko bazkide egiten dira.

Oporretako gogoko uneak ere aipatu ditu Ameztotik: "lehengusuak etorri eta denak elkartzen garen gauak. Garai bateko kontuak kontatzen hasten gara. Holako eta halako. Barreak. Akaso, kantuan hasten gara. Eta goizaldeko ordu bata edo ordu biak arte egoten gara, gustura. Bazkal garaian ere, denak elkartuta".

Gaineratu duenez, paseoak ere egiten dituzte urtean barna elkar ikusten ez duten lehengusuek. "Bide bat hartzen dugu eta han gure konfidentzien larrea dugu. Han eserita, urtekoak kontatzen dizkiogu elkarri. Hura gure txokoa da". Lizarragako beste lehengusu batzuekin Izar Ondora afaltzera joaten dira. "Patxadarako uneak ere baditugu. Atzean dugun baratzearan aurrean arbolak eta loreak landatu ditugu. Han hartzen dugu eguzkia. Telebista pixka bat ikusi. Gero ganbarara joan. Eraikin zaharra denez, urtero txukundu beharra dago. Egunak berehalakoan pasatzen zaizkigu".

Lizarragak esan duenez, "udan, bero egiten duen egunetan, Leziza errekarara joaten gara. Han, egia esan, oso gustura egoten gara. Urtean behin, Gaztelura igotzen gara. Eliza bat dago, eta kuadrilla guztiak kanpaldi gaua egiten dugu. Han ere oso gustura". Azken hori ez dute eginen, COVID-19 gaixotasunaren kutsatzeak saihesteko.

Bestalde, Auzmendik argitu duenez, pandemiako itxialdiko hiru hilabeteak Unanun egon ziren, "primeran". Antsoainen harrapatu zuen Lizarraga. "Negatik Dorraon pasako nuke, etxea handiagoa da. Baina ez du Wifi onik eta ikastolan on-line aritu gara. Bestela, Dorrao".

[illegible]

Udan ere
entzun irratia!

8:30-9:00

Iruñerrian Gaur albistegia



9:00-11:00

Guardasola magazina

 euskalerritarrak


11:00-8:30

Musika

beleixe 107.3 FM

GURUTZEGRAMA

2
DP



Horizontalak:

- 1. Lakuntzako plazako historia ondarea.
- 4. Ziorditik Altsasura iparraldetik doan mendilerroa.
- 9. ... hitzez" Jon Arretxeren azken eleberria.
- 10. Iturmendiko irrati askea.
- 12. 1.552 pertsona bizi diren Sakanako herria.
- 14. Argazkiko sakibaloio jokalaria.
- 15. Etxarri Aranatz eta Arbizu artean dagoen industrialdea.
- 19. Egiaarretako XIII. mendeko ermita.
- 20. Sakanako AEKko euskaltegiaren izena.
- 21. Argazkiko Anitzartean kulturartekotasun zerbitzuko buruaren izena.
- 22. Urdiaingo ihoteetako pertsonaia.
- 25. Argazkiko idazlea.
- 26. ... Berriak: Sakanako musika banda.

Bertikalak:

- 2. Etxarri Aranatzaren egiten den mendi lasterketa.
- 3. Argazkiko Urdiaingo alkatea eta Sakanako Mankomunitateko lehendakariaren izena.
- 5. Iturmendiko gaztetxearen izena.
- 6. Argazkiko pilotaria.
- 7. 1936ko gerrako gorpuzkinak aurkitu diren lekua.
- 8. Burundan dagoen barnetegia dagoen herria.
- 11. Estreinatu, lehen aldiz erabili sakandarrez.
- 13. Arbizun dagoen trikuharria.
- 16. Iribas herrian hasi eta Izurdiagan Arakil ibaiarekin bat egiten duen ibaia.
- 17. Aizkorbetik hegoaldera dagoen basoa.
- 18. 1940an Altsasun egon zen SSetako buruzagi Nazia.
- 23. Irurtzongo areto futboleko taldea.
- 24. Argazkiko abeslaria.



ZIFRATUTAKO POESIA

A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	
⌣	⌢	⌣	⌢	⌣	⌢	⌣	⌢	⌣	⌢	⌣	⌢	⌣	
Ñ	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
⌣	⌢	⌣	⌢	⌣	⌢	⌣	⌢	⌣	⌢	⌣	⌢	⌣	⌢

Denbora eta tokia
gurutzatzen direnean
Castillo Suarez

LOTU ESANAHI BEREKO HITZAK

- | | | |
|-------------------|--------------------------|-----------------|
| 1. Ahitu | ☐ | a. Marigorringo |
| 2. Ainarri | ☐ | b. Bustita |
| 3. Albiziora | ☐ | c. Sakona |
| 4. Barratu artio | ☐ | d. Garrasi |
| 5. Enantzu | ☐ | e. Lasterka |
| 6. Gaztigatu | ☐ | f. Amaitu |
| 7. Harrapakan | ☐ | g. Ekaina |
| 8. Haznahi | ☐ | h. Abisatu |
| 9. Kafi | ☐ | i. Auskalo |
| 10. Katalingorri | ☐ | j. Trebetasun |
| 11. Kisuskile | ☐ | k. Barra-barra |
| 12. Kuntza | ☐ | l. Berehalaxe |
| 13. Ohatze | ☐ | m. Itxura |
| 14. Beleixe | ☐ | n. Zotin |
| 15. Pela-pela | ☐ | o. Kontura |
| 16. Popin | ☐ | p. Igeltsero |
| 17. Uzker | ☐ | q. Panpin |
| 18. Utekio | ☐ | r. Hazkura |
| 19. Zolkona | ☐ | s. Ohe |
| 20. Kika | ☐ | t. Kabi |
| 21. Garagartzaroa | ☐ | u. Puzker |

POSTURAK



optitukttui



iakbuneol



kesu ñegateni



tirajra



paseus



utiz




eigturap




Iskaezdtea

ANTOLATU LETRAK



ZEIN DA
BEHIAREN
ITZALA?





GORPUTZ ATALAK ZEIN DA ZEIN?

Titiye

Surre

Bube

Oine

Aztala

Okotz

Begiye

Bekeine

Bernazpiye

Aque

Zille

Bernazagiye

Belaune

Lepue

Eskube



BILATU BI SAGU BERDINAK



BADATOR
ARGAZKI

IRABAZ EZAZ
ASTEBURU BA
URIBE KOSTAKO CA

ETA ZURE ARGAZ
ERRIGORAKO KAXA Z

WWW.G



LEHIAKETA!

U
T ITSASOARI BEGIRA
ASA DE MARINOS HOTELEAN

KIA BOZKATUENA BADA...
DRAGARRI BAT IRABAZIKO DUZU

UAIXE.EUS

SUDOKU

5
DP

ERRAZA

		3		5				
				2	7			4
	2	6	4					
	7			9		3		6
	4				2			
	6				8	5	4	
		8				7		3
		4		6		2	8	5
	5	7	8	3				9

ZAILA

		6						8
		8	3		1			
					5	9	7	6
	2	4	6				2	
7		1		4	8			
	1							9
			7	2	9			
		2				5		


DERMIOEN HIZKI ZOPA

6 DP

P	B	M	E	P	U	Y	U	I	T	Z	A	L	T	Z	I	G	A	I	N
S	G	L	U	O	X	T	N	I	O	X	T	I	I	G	E	T	S	O	K
X	W	K	D	J	Z	F	O	N	U	M	A	K	R	O	E	B	W	I	L
A	X	K	Q	L	U	A	U	S	B	P	P	R	G	R	V	Y	R	A	E
X	L	U	W	V	L	M	B	X	U	G	T	U	R	F	I	R	H	U	G
A	Z	X	Y	O	O	Q	R	O	X	Y	B	A	A	F	O	Y	D	I	E
R	O	X	I	W	G	R	M	W	L	U	Z	N	L	G	M	U	O	F	R
I	K	D	R	L	N	H	J	D	K	U	V	E	A	E	U	R	G	R	E
B	A	T	R	F	A	L	T	T	T	W	J	R	I	M	M	R	A	A	I
U	T	X	U	N	M	N	X	I	E	Q	R	R	Z	U	O	U	T	X	T
Z	E	A	T	A	X	M	R	R	D	A	J	A	G	G	E	N	X	T	Z
T	R	K	I	I	A	U	O	C	L	U	A	B	O	A	I	Z	I	I	U
A	R	A	L	Z	X	J	R	L	A	V	O	A	I	R	Q	A	S	R	U
N	A	R	O	T	T	H	I	Y	S	N	K	T	E	R	V	B	T	R	B
D	N	T	P	B	Q	O	F	H	H	W	H	A	N	A	S	A	A	U	N
E	O	S	L	L	X	E	N	X	Y	X	D	A	Q	T	C	L	K	T	F
G	K	O	O	V	E	W	Y	D	G	C	C	B	X	E	W	J	D	I	Q
I	Z	E	P	U	T	R	Y	T	O	T	Z	U	Z	A	R	R	E	T	A
K	A	A	M	O	R	L	E	K	U	G	T	Z	B	C	K	O	V	X	J
N	I	G	R	A	M	A	Z	A	A	T	E	U	N	U	M	A	T	O	Z


- ZAMARGIN
- OSTRAKA
- GATXISTA
- URRUNZABAL
- ZUZARRETA
- OTAMUNUETA
- MUGARRATE
- KOSTEGI
- BEORKAMUNO
- AMORLEKU
- ITURRITXAR
- ZUBAATABARRENA
- TXURITUZARRETA
- AIZTONDO
- ITXOINTXO
- POLPOLITURRI
- ILLARRAGORRI
- ITZALTZIGAIN
- AXARIBUZTANDEGI
- LEGEREITZU
- MANGOLUZ
- ALAIZGOIEN
- AZKONARRETAKO

ANIMALIAK




NON DAUDE SAKANAKO TXOKOAK?

7
DP



NOLA LORTUKO DUZU GUAIXE ASTEKARIA?



10 EZBERDINTASUNAK



BAZKIDE ZOZKETA

SARIDUNAK:

1. ARANTZA SALEGI RIVERA (Segura)
2. PATXI BETELU AIERBE (Uharte Arakil)
3. ERNESTO LEIZA URRESTARAZU (Bakaiku)
4. RUBEN RODRIGUEZ ROMERO (Lakuntza)



IRAILEKO SARIAK

1. SARIA:

EKAINBERRIKO KOBAZULOAK: 2 sarrera

ARTAZAKO KANPINA: %10eko deskontua

LACTURALE: Esneki lotea

GAZTEZULO: 3 hilbaitez doan

EREIN: Argitaletxearen liburu bat

2., 3. ETA 4. SARIAK:

DONOSTIAKO AQUARIUMA: 2 sarrera

ARTAZAKO KANPINA: %10eko deskontua

LACTURALE: Esneki lotea

EREIN: Argitaletxearen liburu bana



Ekain berri



Erantzunak irailaren 1ean
webgunean izanen dituzue

www.guaixe.eus

ETXARRI ARANATZ

UZTAILA

31 OSTIRALA

20:00 Azken ostirala: Euskal presoak, Euskal Herrira elkarretaratzea. Plazan.

21:00 Izan bidea #BeyetzErronka: Aurkezpena. Plazan.

ABUZTUA

1 LARUNBATA

20:00 Izan bidea presoak etxera! #SakanaMartxan Sareren manifestazioa. Errotondan.

7 OSTIRALA

20:00 Euskal presoak, Euskal Herrira elkarretaratzea. Plazan.



13 OSTEAGUNA

21:00 Etxarrin Uda Bizi: Hezurbeltzak taldearen ikuskizuna. Plazan.

14 OSTIRALA

20:00 Euskal presoak, Euskal Herrira elkarretaratzea. Plazan.

20 OSTEAGUNA

21:00 Etxarrin Uda Bizi: Gatibu akustikoa. Plazan.

21 OSTIRALA

20:00 Euskal presoak, Euskal Herrira elkarretaratzea. Plazan.

21:00 Etxarrin Uda Bizi: Bocabeats bakarriketak. Plazan.

27 OSTEAGUNA

21:00 Etxarrin Uda Bizi: The Road Musika Xabier Artieda etxarriarraren ikuskizuna. Plazan.

28 OSTIRALA

21:00 Azken ostirala: Euskal presoak, Euskal Herrira elkarretaratzea. Plazan.

28 OSTIRALA



19:30 Etxarrin Uda Bizi: Zirika Zirkus konpainiaren BerreraBizi ikuskizuna. Plazan.

IRAILA

3 OSTEAGUNA

21:00 Etxarrin Uda Bizi: Zetak akustikoa. Pello eta Gorka. Plazan.

BAKAIKU

UZTAILA

31 OSTIRALA

20:00 Gozamenegaz programa. GozaBizi: Jolasak, antzerkia eta zirkua Pantxikarekin. 12 eta 16 urte bitarteko gazteendako. Plazan.

ITURMENDI

ABUZTUA

7 OSTIRALA

20:00 Gozamenegaz programa. GozaBizi: Jolasak, antzerkia eta zirkua Pantxikarekin. 12 eta 16 urte bitarteko gazteendako. Plazan.



Etxarri Aranatz,
goitti burubok

Konpartsa handituz

Beltza Zuria, Beraxko, Txinerratso eta Kixkimau dira Etxarri Aranazko erraldoiak, baina konpartsarekin beste erraldoi txiki batzuk ere ibiltzen dira. Orain, erraldoi txiki gehiago jaiotzen ari dira

Erkuden R. B. eta Eneida C. M.

Etxarri Aranazko erraldoi konpartsaren ohitura 1970. hamarkadatik dator. Garai hartan bi erraldoi zeuden: Errege Erregina. Joakin Morentin konpartsako kideak azaldu duenez, garaiko erraldoi gehienak berdinak ziren. Garai hartan udaleko langileek ateratzen zituzten erraldoiak. 1980. hamarkadan, ordea, Morentinek eta bere kuadrillak hartu zuten ardura. Buruhandiak ateratzen zituzten ere. 2000. urtera arte ibili ziren. Erraldoi konpartsaren bigarren etapa 2017. urtean iritsi zen, oraingo lau erraldoiak egin zituztenean. Erraldoiekiko zaletasuna, aldiz, ez da inoiz galdu.

"2000. urtean figura berriak eskatu genituen, gaia pixka bat alde batera gelditu zen. Orduan, utzi genuen". Duela hiru urtera arte. "Eneka zen alkatea, eta hark gaia berreskuratu behar zela uste zuen, ezin zela horrela gelditu. Jendeak erraldoiak eskatzen zituen txikitan ikusten zituelako, eta gogoia zuen". Orduan, erraldoiak berritzea erabaki zen. Etxarriko mitologia eta historia baliatuz, Beltza Zuria, Beraxko, Txinerratso eta Kixkimau erraldoiak sortu zituzten. Erraldoi zaharrak birziklatuz, bi erraldoi

berri sortu ziren; beste bi erraldoiak berri-berriak dira. Lau erraldioen estrukturak egurrezkoak dira, baina zaharberritutakoek 45 kiloko pisua daukate; berriek, 30 kiloko.

Beltza Zuria eta Beraxko senar-emazte bikote bat da. Etxarri XIII. mendean bizi ziren. Haien "ustezko" janzkeran inspiratuta sortu ziren Etxarriko abesbatzako kideen jantziak. Orain, Beltza Zuriak eta Beraxkok arropa horiek daramatzate ere. Txinerratso Etxarriko sorgina da, eta Kixkimau, inauterietako pertsonaia. 2017. urteko festetan mustu zituzten lau erraldoiak, eta haiekin batera bost erraldoi txiki ere atera ziren. "Harrigarria izan zen jendearen erantzuna".

Morentinek hamaika anekdota ditu kontatzeko. Ia bi hamarkadetan erraldoiak dantzatzen zituzten, eta bikote bakarra zenez, balsa bezalako dantzak egitea erraza zela dio. "Ez zen asko behar; inprobisatzen genuen". Bi bikote - lau erraldoi - ateratzen hasi zirenean "koordinazio gehiago" behar zutela dio, eta entseatzen hasi ziren. "Lau pausu atera ditugu, eta hobetu dugu". Konpartsaren etapa honetan hainbat gazte hasi dira taldean. Esaterako, Pello Mikelez iaz hasi zen. "Proba-

tzeko esaten zidaten, eta animatu nintzen. Azkenean, osogusturana go". Hilabetearen behin entseatzen dute.

Erraldoi txikiak

Erraldoi berriak mustu zituzten egunean, konpartsako kideen "harridurarako", herritarrek egindako erraldoi txikiak agertu ziren ere. Ideia horrekin eta koronabirusak eraginez ezarritako konfinamenduen ondorioz, konpartsak erraldoi txiki gehiago egiteko proposamena bultzatu zuen. Horretarako, Youtuben tutorialak egiten hasi ziren.

"Whatsappeko taldean hitz egiten hasi ginen, eta Iñakik komentatu zuen zerbait egin genezakeela jendea animatzeko eta jendeak bere etxean erraldoiak egiteko. Ideia ona iruditu zitzaigun, eta pixkanaka hasi ginen". Erantzuna ona izan dela esan dute konpartsako kideek. Iñaki Apalategik alabaren etxerako lanetatik hartu zuen ideia. "Kartoiarekin eta kolarekin maketa batzuk egin behar zituen, eta ondo gelditzen zela iruditu zitzaidan. Beti esaten dugu jendea inplikatu behar dugula". Konfinamendua baliatuz, haurrak entretenitzeko modu polita izan zitekeela iruditu zitzaion. "Denek

oso ideia ona zela esan zuten, eta tutorialak egiten hasi ginen".

Tutorialak "inprobisatuz" egin dituzte. Asun Gualek azaldu bezala: "Ez dago aurretik ezer egin. Zerbait egin behar dugunean Interneten begiratzen dugu". Aurretik erraldoi txikiak egin zituztenei ideiak eskatu dizkiete ere.

Dena puxika batekin hasten da. Puxikaren gainean egunkari papezez eta kolaz egindako nahasketa baten hainbat geruza jarri behar dira. Horrela burua lortzen da. Ondoren, estruktura eta eskuak egin behar dira. Amaitzeko, arropak egin behar dira. "Azken bideoa gelditzen zaigu, arroparena". Hala ere, arropa zaharra birziklatu dutela aipatu dute. Erraldoi txiki bat egiteko pausoz-pausoko tutorialak konpartsaren Youtubeko kanalean daude.

10 eta 12 urte bitarteko haurrek eramateko moduko erraldoiak egin daitezke tutorialak jarraituz. Bi metroko altura dute, gutxi gorabehera, eta bakoitzak nahi duen pertsonaia egin dezake. Esaterako, konpartsako kideen artean zortzi erraldoi txiki aterako direla esan dute: Trikitilaria, Pandero jolea, Mari Domingi... "Haurrek pertsonaia aukeratu dute; zer-nolako itxura eman

jakiteko, Interneten argazkiak begiratu ditugu; eta pixkanaka egin dugu". Konpartsako kideak ez direnak ere erraldoi txikiak egitera animatu direla gaineratu dute.

Etxarri Aranazko festak bertan behera gelditu direnez, momentuz ez dituzte erraldoiak aterako. Gainera, Apalategik azaldu duenez, "erraldioen barruko lekua oso itxia



da, eta osasun neurriak direla-eta ezin dira atera". Beraz, momentuz ez dakite noiz mustu ahal izanen dituzten konpartsako kide berriak. "Batzuk bukatuta daude; beste batzuk, prozesuan...". Konfinamenduan jaiotako erraldoiekin festaren bat egin nahi dute egunen batean.

DERRY TABERNA
SAOR DOIRE
ETXARRI ARANATZ

Kale Nagusia, 8
Etxarri-Aranatz

948 461 703

eseki
Intalazioen
ingeniaritza

Aritzalko industrialdea, 21
Etxarri Aranatz
948 46 11 35
<http://www.eseki.com>

HORTZ KLINIKA
Etxarri

Eguerdietan zabalik

948 460 315
Kale Nagusia 27
Etxarri Aranatz

ITYRRI **EDER**
JATETXEA TABERNA

948 461 530 · Larrañeta, 7 · Etxarri Aranatz



"Bakaikuko barnetegian gertatzen dena bertan gelditzen da"

Rebeka Mendoza

Zenbat urte daramatzazu barnetegian lanean?

9 urte inguru daramatzat barnetegiko zaindaria izaten. Ez dut nagusirik, horregatik, oso zorrotza izan behar zara zure buruarekin eta etxearen jaun eta jabe bilakatu behar duzu.

Oso etxe handia da, ezta?

Bai, etxabea sukaldia, jangela, egongela eta ikasgela daude; goiko solairuetan logelak ditugu.

Zenbat jende sartzen da etxean?

60 pertsona inguru. Orain ezin da edukiera guztia bete.

Nongoa da etortzen den jendea?

Bilboko, batez ere. Baina Nafarroako jendea ere etortzen da.

Nolakoa da zure egunerokoa?

Lehen, etxearen garbiketa nire arduraz, eta, gainera, sukaldariaren laguntzailea nintzen. Otorduetan janaria prestatzen eta banatzen laguntzen nion.

PILAR GOÑI ONDARRA

BAKAIKUKO BARNETEGIKO ZAINDARIA

Bera mantentze lanez arduratzen da. Orain, ahal duen gehiena egiten saiatzen da, baina bere egunerokoa erabat aldatu zaio.

Nola aldatu da zure egunerokoa?

Ikasleak dauden bitartean ezin naiz etorri. Orain, goizeko 05:30ean, ikasleak lotan daudenean, gosaria prestatzera eta landareak ureztatzen etortzen naiz. Gazte bat kontratatu dute nire beste funtzioak betetzeko, nagusia bainaiz; eta barnetegiko zuzendariak nire osasunaz kezkatzen dira.

Nolakoa da sukaldariaren egunerokoa?

Bera Gasteiztik etortzen da, eta hemen bere logela du. Ia nik adina urte daramatza hemen lanean. Egunero janariaren erosketak egiten ditu, produktu freskoak izatea gusatzen baitzaio. Oso-oso ondo kalkulatzeko ditu janari kopuruak. Ez dakit nola egiten duen baina beti dago apur bat errepikatzen auzera. Sukaldari aparta da; bere lasaginak ikasle guztiak zoritzen ditu.

Kontaktatu duzu ikasle edo irakasleekin?

Aurretik esan bezala, orain ezin naiz haiekin harremanetan jarri. Lehen, aama baten modukoa. Beraiekin euskaraz hitz egiten saiatzen naiz. Oso galduta dudana arren, hemengo hitzak eta esanak irakasten saiatzen naiz.

Zer neurri hartu behar izan dituzue COVID-19 gaixotasuna dela eta?

Orain barnetegia hotzagoa da. Ikasleei, sartzean, gorputzeko tenperatura neurtu behar zaie, eta beraiek eskuak garbitu behar di-

tuzte. Gainera, ohe kopurua gutxitu da. Horretaz aparte, irakasleek herriko jendea saihesten dute. Klaseak udaletxean ematen zituzten lehen, baina orain ez da posible.

Noiz etortzen dira gehien?

Maiatzean hasten da denboraldia. Aurten, ordea, garilean hasi gara. Irailean azken taldeak etortzen dira.

Zenbat egun egoten dira?

Normalean, 15 egun. Ikasle helduen kasuetan, asteburuetan ere etortzen dira. Sagardotegi garaian Atauneko oinez joaten dira, eta bertan bazkaltzen dute.

Barnetegiak 30 urte bete ditu, ezta?

Bai. Kontu askotarako eman dute urte hauek, baina dena ezin da esan. Bakaikuko barnetegian gertatzen dena hemen gelditzen da... Aurten ospakizun berezi bat egin nahi genuen, baina Bakaikuko festak bezala, bertan behera gelditu da ospakizuna.





Santa Marinako aireko zaindariak

MARI JOSE ASEGINOLAZA, PATXI LOPEZ ETA SANTI LOPEZ PARAPENTELARIAK

Haien klubarekin batera, urtero garagarriaren 10ean parapentelarien topaketa antolatzen dute Iturmendin. Aurten, beste ekimen batzuk bezala, ezin izan dute antolatu. Hala ere, haien hegaldiekin jarraitzen dute

Rebeka Mendoza

Nondik datorkizue parapentearen zaletasuna?

Egia esan, beti ibili gara mendian. Eskalatzen hasi ginen, baina txikitatik izan dugu parapentean ibiltzeko kuriositatea. Txikitan Santa Marinan delta hegala ikusten genituen eta jakin-mina sorrarazten zigun.

Noiz hasi zineten hegan egiten?

Patxi 21 urterekin hasi zen; Mari Jose, 27rekin; eta Santi, 30rekin.

Zer egiten du horren erakargarri?

Hegan egiteko sentsazioak. Oso polita da hegaldia mantentzea. Asko gozatzen da. Pirueta asko daude ere... Eta hoberena ondorengo bazkaria da.

Hasi zinetenean beldurra sentitu zenuten?

Ez asko. Pixkanaka egiten den prozesua da; hegaldi motzak egiten hasten da. Dena den, beti komeni



da beldur pixka bat sentitzea, hegaldiei errespetua ez galtzeko.

Noiz eta nola sortu zen Baiza parapente taldea?

Taldea Deltako hegaleko talde batetik sortu zen. Jokin Aranbururekin hasi ginen hegan ikasten, eta gutxira, taldea sortu genuen, 1990ean.

Taldeko egoitza Araian dago, eta, horregatik, Araban federatuta gauden.

Askotan elkartzen al zarete? Zenbat bazkide zarete?

50 pertsona inguru gara baina gehienetan elkartzen garenak 10 bat pertsona gara.

Zein da taldearen helburua?

Taldearen helburua da beti baten batekin hegan egitea eta parapentearen erabilera sustatzea.

Aurten ezin izan duzue urteroko parapente eguna ospatu. Honen ordezko zerbait egin zenuten?

Bai, Santa Marinan parrillada bat egin genuen, taldeko beste kide batzuekin batera.

Zenbat topaketa antolatu dituzue orain arte? Joan den urteko topaketak zenbat jende bildu zuen?

7 edo 8, urteko bat. Joan den urtekoan ia 200 pertsona bildu ginen; haien artean Kataluniatik edota Andaluziatik etorritako jendea zegoen.

Zuek beste topaketetan egon zarete?

Bai, noski. Guretako oso ohikoa da Urduñara, Belaguara edota Loarre-ra joatea. Talde gehienek bere eguna ospatzen dute, eta murgiltzen saiatzen gara. Azken batean, jende gutxi gara, eta ia guztiok elkar eza gutzen dugu.

Zergatik da Santa Marina parapentearekin botatzeko hain leku aproposa?

Oso hegaldi erraza delako; ez da lehorra ezta termikoa ere. Aineratzea erraza da, eta hegaldia oso lasaia da. Gainera etxean bertan dugu.

Zenbat kostatzen du Santa Marinatik jaistea?

Egunaren arabera da. Haizerik ez badabil eta termikarik ez badago, 8 minututan jaitsi ahal da. Baina termika edo hegal haizea dagoenean ordu eta erdi edo bi ordu eman daitezke airean.

Oinez ala autoz joaten zarete?

Autoz... Taldeko auto bat dugu, ahalik eta ibilgailu gutxien igotzeko. Gainera, Urbasan ibiltzeko baimen berezia dugunez, asko erabiltzen dugu.

Estatuan ezaguna da Santa Marina?

Santa Marina baino gehiago, Urbasa. Azken urte hauetan Santa Marina ezagunagoa bilakatu da parapentelarien topaketa antolatzen dugulako.

Santa Marinaz aparte, zein dira gertukolekuaproposenak hegaldiak egiteko?

Beriain, Aralarko santutegia eta Eulate.

Hegaldiak egin dituzue Euskal Herrikan kanpo?

Bai. Hegoaldean hegaldiak antolatzeko baldintza hobeak daude, baina paisaiak ez du hemen duen xarma. Aste Santuko eguraldia aproposa da, baina udan ezinezkoa.

Ba al duzue leku kuttunik parapentean botatzeko?

Guretako Santa Marina leku kuttunena da. Baina Orio eta Belagua ere oso estima handian ditugu.

Euskal Herrian oso famatua da Sopela. Zer moduzkoak dira hegaldiak bertan?

Oso lasaiak. Guretako ez dira oso hegaldi atseginak. Kostaldeko beste hegaldi batzuk politagoak dira, Orio edo Zarautz esaterako.

Parapentean hasteko gomendiorik?

Bai, lehendabizi hegaldi bat bi lagunendako parapente batean egitea gomendatzen dugu. Hurrengo pausua ikastaro bat egitea da. Gerora, talde batera sartzen aukera dago, eta, horrela, hegaldiak egiten has zaitezke. Esperientzia duen jendearekin elkartzean ikasten da gehien. Ikastaroan oinarritzko gauzak ikasten dituzu, baina, gero, praktikan jarri behar dira. Denbora luzeko ikasketa prozesua da, batez ere meteorologia kontzeptuen ingurukoa. Eguraldia oso garrantzitsua da, ezta?

Bai, horren arabera hegaldia egin daiteke ala ez. Haizearen norabidea eta eguraldiaren iragarpena oso nabarmenak dira ere. Gaur egun, mendietan balizak eta mugikorrek aplikazioak daude. Asko errazten dizkigute hegaldiak.

Gaitasun berezirik behar da hegan egiteko?

Ez, gogoak badituzu aurrera. Hori bai, ez da batere gomendagarria bakarrik hegan egitea, aspergarria eta arriskutsua izan daitekeelako.

COMERCIAL ETXARRI
altzariak - muebles

Beasaino Errepidea
Etxarri-Aranatz
948 460 021
<http://comercialetxarri.com/>

Eñaut

617 616 085
enautigeltseritza@gmail.com
Eraberritzeak
Igeltseritza

Igoa
orroindegia

948 460 111
Arkuetabide kalea - Etxarri Aranatz

INOX
NAPARRA, S.A.

Arangorrieta industrialdea
Etxarri Aranatz | 948 46 03 81
<http://www.inoxnaparra.com>

iraize
gosariak bokatak

948 117 810
ETXARRI ARANATZ

Sarabe, askorako ematen duen ibarra

Xarma berezia du. Bere txikitasunean iturriak, landaretza aberatsa eta haitz ikusgarriak ditu. Haietan daude Jentilen Leihoa eta Sukaldea, baita Iruritako gaztelua zena ere, haien parean dagoen Aitziber ermitaz ahaztu gabe



Alfredo Alvaro Igoa URDIAIN

Urdiainek iparraldean duen Sarabe ibartxoak berezko erakargarritasuna du ere. San Pedro ermitarako bidea hartu, hura atzean utzi, eta iparralderantz segi beharko du bidaiariak. Harratea pasa, eta igerilekuetara iritsi aurreko bidegurutzean eskuinera eginez iristen da Sarabera, ibar txikia, baina kontatzeko asko duena. Eta gidaritarako Sarabeko baserriko Teresa Irigoien Arregi hartu dugu.

Iparaldetik Sarabeko haitzak mugatzen du, hegoaldean Laieneko eta Gazteluko haitzak. Gaur egun, Sarabera mendebaldetik sartzen bada ere, lehen ekialdetik egiten zen, Galartza-kobidetik. Eta San Migel ermitazena-

ren harri pilarekin topo egiten zuten. Antza Galartza herriko eliza zen.

Ermita

Ibarraren beste puntan, eta egungo sarreratik gertu, Sarabeko baserria dago. Eta haren aldamenean Aitziberko ermita. Irigoienek jakinarazi duenez, "jende asko joaten da. Debozioa badago. Kandelak, loreak eta halakoak jartzen dituzte. Urte gutxian etortzen da jendea".

Ermitako erretaula "ederra" zela nabarmendu du, "aze kolore zituen". Azaldu duenez, ermita erortzekotan zegoen, eta Jose Mari Satrustegi zegoela dena konpondu zen. "Ermitak lehen zuen aterpea ona zen, orain ez. Txikia, tamainaz berdina

berdina zen. Baina orduan zorua lurrezkoa zen. Ate ondoan, sua. Ez tximinia, ez ezer. Lurrean porlana bota zuten, eta ate parean sua eta tximinia egin zituzten". Mendizaleek ez dute lotarako ibiltzen.

Ermita dagoen tokian Altzibar herria zegoela azaldu du Irigoienek. "Altzibarko ama birjina da ermitakoa. Aitziber, Aitziber, baina Altzibarko ama birjina omen da". Ermita garai bateko herriko eliza zen. "Denak hil, kolerarekin edo zerbaitekin, eta bat gelditu eta Urdiainen hartu zuten. Horregatik da Urdiaingoa".

Jentilak eta sorginak

Baserriaren pareko haitzean naturak egindako zuloa dago, Jentilen

Leihoa. Ekialdera Jentilen Sukaldea dago, "haitz puntan. Eta beste tontor txikian, honuntzago, Iruritako gaztelua". Irigoienek azaldu duenez, Saraben sorginak egon ziren garai batean. "Hemengo eta Zugarramurdiko sorginak berak zirela esaten dute. Erratz gainean ibili beharko zuten! Zelai hau sendabelarrak hartzeko zen, eta eguteren lehortzen zituzten. Jentilek ez erasotzeko zelaitik etortzen ziren eta hemendik belarrak nola lehortzen ziren ikusten zuten".

Jentilak haitzeko sukaldean bizi ziren. "Halakozulo bat dago haitzean, eta handik Sakana guztia kontrolatzen zuten". Urdindarrak, jentilak! Esaera aipatu diogu Irigoieni: "beti bezala, bai, jentilak. Jende indartsua egoten zelako". Eta Jentilen Sukaldearen azpian egindako indusketa batez gogoratu da: "hezurra atera zituztenean, berna hezurra Urdiaingo altuenari aldakaraino iristen zitzaion. Benetan galantak ziren". Guztiak museotatik bukatu zuela gaztigatu du, "baina ez dago inongo museotatik ikusgai". Irigoienek esan duenez, "sorginak eta jentilak aurkariak ziren, haiek hemen belarrak eta gauzak biltzen zituztelako".

Baloi baten tamainako bi harri borobil erakutsi dizkigu Irigoienek. Halakoein erasotzen zieten piztiei jentilek. Partzelak bildu zirenean, palak ateratakoak dira bi harriak.

Jolasa

Garai batean herri guztia ibiltzen zen Saraben, lurra makina bat partzela txikitan banatuta zegoelako. "Orain paseatzen dagoen jendea besterik ez dago". Sarabekoak azaldu duenez, "garai batean hau institutua bezalakoa zen. Hamar haur ziren. Mundu guztia mendira etortzen zen. Bata, ahuntzekin. Bestea, ardiekin. Behiek. Basoan txerriak zituenak... Mundu guztia etortzen zen. Orduan heririk honutza lasterraldi batean

etortzen zen. Hemen hainbeste haur izanda, hona etorri eta hemen jolasten ziren". Irigoienek jolasetako baten berri eman du: "nagusienek harri borobilak sorbalda gainean hartu, eta Sarabeko haizpera eramaten zituzten. Handik bota egiten zituzten, ea zein azkarren jaitsi. Adin guztietako haurrak zeuden behean. Eta beste batzuk, atzean negarrez. Eta haurren bat hil behar zuten beldurrez, aitonak etxe hartako paretetan jarri zituen harri haiek".

Aitak esan zionez, beste etxea egiteko halako beste bi harri erabili zituen. Hargina zen, eta berak egin zuenez beste baserria, bazekien. "Etxea oso polita zen. Leiho originalak zituen, inolako harri landurik gabe". Han familia bat bizi zen, baina herrira bizitzera jaitsi ziren, eta etxeak, pixkeka-pixkeka, behera egin zuen. "Hura erortzen hasi zenean, antza, besteren batek ere bazekien harri haiek han zeudela. Jendeak lau egunetan dena bota zuen. Aitak esaten zuen: 'harri haiek egon behar dute'. Baina eramana zituzten".

Palak agerian utzi zituztenean jolaserako hainbestetan erabilitako harriak, aitak alabari esan zion: "hor dituzu jentilen harriak, jaso nahi badituzu...". Irigoienek harriei begira esan du: "jentilen defentsak. Harriok dominatzeko, galantak ziren gero!" Bere buruari ere galdera egin dio: "sorginekin haserre, baina Iruritako gaztelukoekin nola egonen ziren? Nolako elkarbizitza zuten? Haien aurretik hemen izanen ziren".

"SARABEKO ETA ZUGARRAMURDIKO SORGINAK BERBERAK ZIRELA ESATEN DUTE"


GUAIXE
618 882 675

Pintxoak eta bokatak


IRATXO TABERNA
ETXARRI ARANATZ
682 90 02 98

LEKU ONA TABERNA


Gosariak 9:30-11:00
Bokatak gauetan
Aurretik deitzea badago
Etxarri Aranatz
948 461 228


948 46 19 80
636 70 74 88
Larrañeta Kalea 6
Etxarri Aranatz


xapatero
taberna
Etxeko kroketa eta bokatak
948 460 162 · Etxarri Aranatz



"Gure helburua jendea animatzea da"

ELEKTROKELA ELEKTROTXARANGA

Altsasuko festetan ospatu zen I. Kuadrillen egunerako herriko musikari gazteak biltzen hasi ziren, eta egun hartan herri elektrotxaranga sortu zen. Orain, ofizialki sortu dute taldea

Erkuden Ruiz Barroso

Abuztuaren 28an, ostiralarekin, 20:00etatik aurrera, Elektrokela elektrotxarangak bere mustutzea egingo du Altsasuko kaleetan. Bederatzi gaztek osatzen dute taldea: Irune Guinea (saxofoia), Hodei Alegre (perkusioa), Daniela Markes (perkusioa), Amañur Goikoetxea eta Jesus Palop (abeslariak), Unai Manero (tronboia), Iñaki Cerezo (trontpetu), Luken Goikoetxea (baxua) eta Ekain Alegre (gitarra). Gazteak diren arren, eskarmentu handia dute musikaren munduan,

izan ere, gehienak beste talde batzuetan ere aritzen dira.

Zergatik elektrotxaranga?

Aurreko urtean hasi genuen proiektua da. Hasieran, herri elektrotxaranga zen, herriko musikarien artean, zerbait jotzeko, festetan ongi pasatzeko. Hasieran, bost pertsona elkartu ginen, lehenago beste bi gehiago zeudelako, Patxi eta Adrian. Altsasuko Kuadrillen eguna antolatzen ari ziren, eta esan ziguten ea posible zen Altsasuko musikariak elkartzea. Hasieran, ez genekien elektrotxaranga moduan izango zen. Talde

irekia zen. Instrumentuengatik elektrotxaranga moduan osatzea erabaki genuen. Ondoren, Gaztetxearen urteurrenean jo genuen herri elektrotxaranga bezala. Abenduan serioago hartzea erabaki genuen, eta izenak pentsatzen hasi ginen.

Zer desberdintasun daude elektrotxaranga baten eta ohiko txaranga baten artean?

Desberdintasun nabarmenena instrumentuak dira. Guk, adibidez, baxua eta gitarra bezalako instrumentuak ditugu. Instrumentu horiek ekipoa behar dute, anpliak eta. Txaranga hai-

rezko instrumentuak eta perkusioak osatzen dute, gehienbat. Ez dute behar musika ekiporik. Elektrotxaranga batean bestelako kantak egin daitezke.

Hainbat taldetan ibiltzen zarete. Zer desberdintasun nabaritzen dituzue?

Elektrotxarangak aukera ematen digu banda edo txaranga batean jotzen ez ditugun abestiak jotzeko. Azkenean, talde horiek bere erreperatorioak dituzte. Tabernetan entzuten diren abestiak jotzen ditugu elektrotxarangan, rock estilokoak eta abar. Txarangen kalejirak dira gehienbat. Bandan beste estilo batzuetako kantak jotzen ditugu. Publikoa ere desberdina da. Elektrotxaranga gazteei bideratuta dago.

Zer nolako abestiak egiten dituzue?

Denetarik daukagu: rock, reggae, ska... tabernetan entzuten dena. Euskal Herrian ditugun taldeetatik hainbat abesti hartu ditugu, eta erreperatorio bat osatu dugu. Gehienbat, jendea animatzeko abestiak dira.

Elektrokela izena nondik dator?

Zerrenda izugarri luzea geneukan, eta, azkenean, modu demokratikoan

erabaki genuen. Gehienak txorradak ziren. Izan hau txorrada horietako bat da: Elektrokela.

Abuztuaren 28an Altsasun zehar erronda egingo duzue. Zer espero duzue?

Azken finean, jendearekiko hurbiltasuna da desberdintzen gaituena. Nahiko sentsazio arraroa izango da abuztukoa, egoeragatik segurtasun tartea utzi behar delako. Baina jendeak ongi hartzen badu eta neurriak errespetatzen baditu, nik uste zerbait polita egin daitekeela. Hala ere, ez da gauza bera izango. Ea jotzen dugun, noski, hori beste kontu bat da. Gogoia badugu, baina jendea ezin denez dantzatzera hurbildu... gure helburua jendea animatzea da, eta gustura egotea. Orduan, hori terraza batean eserita egin badaiteke, primeran.

Abenduan elektrotxaranga sortu, eta martxoan konfinamendua. Nola pasa duzue?

Sentsazio oso arraroa izan da. Taldeetan entsegu pila bat izatetik, bat-batean, etxean bakarrik egotera eta bakarrik entseatzera pasa ginen. Berriz ere taldean jo nahi genuen. Proiektuekin aurrera jarraitzeko gogoia genuen.

Sare sozialetarako bideoak egin dituzue, ezta?

Bai. Talde horiek hor jarraitzen dutela esateko.

Nola ikusten duzue uda?

Uda arraro samarra izaten ari da. Beno, urtea orokorrean. Oraindik ez dakigu ateraldi asko izango ditugun... Datorren urtera begira ere ez dakigu nola egongo den egoera.

Zertan inspiratu zarete elektrotxaranga sortzeko orduan? Zein dira zuen erreferenteak?

Sanferminetan Iruñeko alde zaharrean ibiltzen diren elektrotxarangak ikustean pentsatu genuen geuk ere abesti horiek jo nahi genituela. Elektrotxarangek jende asko mugitzen dute, abestiak ezagunak baitira. Jendea animatzen da.

Zure edari banatzailea!

Hijos de Goikoetxea
Tel. 948 467 317 - 948 662 341 - Geltoki auzoa 11 - ALTSASU

BILTOKI
TABERNA • JATETXEA

Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak
Karta

Asteleheneretik ostiralera
Eguneko menua 10€

Asteburuetan
Menu berezia 25€

948 467 876 • Altsasu

CONHERSA

**LUR OROAKO
TRANSPALETEN
FABRIKATZAILEA**

Ibarrea Industrialdea, Altsasu
948 467 951 | www.conhera.com

Meraki N.S
Argazkilaritza profesionala

650 265 001 Altsasu
info@merakinsfoto.com

ALTSASU

UZTAILA

31 OSTIRALA

20:00 Altsasukoak aske elkarretaratzea. Udaletxearen parean.

20:00 Txaranga Txorogoren erronda. Herrian zehar.

20:00 Fitoscopia Fito&Fitipaldis taldearen tributua. Iortia zabalgunean.

ABUZTUA

2 IGANDEA

08:00 Arantzazu-Aloña-Urbi-Arantzazu egun erdiko ibilaldia egingen du Altsasuko Mendigoizaleak taldeak.

20:00 Euskal presoak, Euskal Herria elkarretaratzea. Plazan.

3 ASTELEHENA

12:00 Pentsio duinen alde. Sakanako Jubilatuen eta Pentsiodunen Koordinakundearen manifestazioa. Zumalakarregi plazatik Aita Barandiaran adinduen egoitzara.

4 ASTEARTEA

21:00-23:00 Gau dibertigarriak: Proiekzioa. Intxostiapuntako patioan.

7 OSTIRALA

20:00 Altsasukoak aske elkarretaratzea. Udaletxearen parean.

20:00 Hutsun eta Ortzaldeen Urbasa ikuskizuna. Musika eta zirkua. Iortia zabalgunean.

9 IGANDEA

08:00 Murua-Harrobia-Gorbea-Harrobia-Murua egun erdiko ibilaldia egingen du Altsasuko Mendigoizaleak taldeak.

20:00 Euskal presoak, Euskal Herria elkarretaratzea. Plazan.

10 ASTELEHENA

12:00 Pentsio duinen alde. Sakanako Jubilatuen eta Pentsiodunen Koordinakundearen manifestazioa. Udaletxearen paretik jubilatuen elkartera.

11 ASTEARTEA

21:00-23:00 Gau dibertigarriak. Gymkana. Intxostiapuntako patioan.

14 OSTIRALA

19:00 *Berrerabizi* Zirika Zirkus konpainiaren familiar teko ikuskizuna. Iortia zabalgunean.

20:00 Altsasukoak aske elkarretaratzea. Udaletxearen parean.

16 IGANDEA

06:00 Panticosa-Iboi urdina-Tebarray iboia-Marmolerako gaina egun osoko ibilaldia egingen du Altsasuko Mendigoizaleak taldeak.

20:00 Euskal presoak, Euskal Herria elkarretaratzea. Plazan.

17 ASTELEHENA

12:00 Pentsio duinen alde. Sakanako Jubilatuen eta Pentsiodunen Koordinakundearen manifestazioa. Zumalakarregi plazatik Josefina Arregi klinikara.

18 ASTEARTEA

21:00-23:00 Gau dibertigarriak. Ping pong eta futbol txapelketa. Intxostiapuntako patioan (eguraldi txarrarekin, gazte gunean).

21 OSTIRALA

20:00 Altsasukoak aske elkarretaratzea. Udaletxearen parean.

20:00 Zangitu fanfarrearen erronda. Herrian zehar.

20:00 Los del Rayo taldearen kontzertua. Iortia zabalgunean.

22 LARUNBATA

10:00 Alde hemendik krosa. Ospa! Mugimenduak antolatuta.

ta. 10:00etan inskripzioak eta 11:00eta krosa. Plazan.

23 IGANDEA

06:00 Oza-Lenitoko gaina-Forcako gaina egun osoko ibilaldia egingen du Altsasuko Mendigoizaleak taldeak.

20:00 Euskal presoak, Euskal Herria elkarretaratzea. Plazan.

24 ASTELEHENA

12:00 Pentsio duinen alde. Sakanako Jubilatuen eta Pentsiodunen Koordinakundearen kontzentrazioa. Udaletxearen parean.

25 ASTEARTEA

18:30 Segurtasun informatikoari buruzko hitzaldi tailerra. Ospa! Mugimenduak antolatuta. Gaztetxean.

21:00-23:00 Gau dibertigarriak. Ur jolasak eta argazki rallya. Intxostiapuntako patioan (eguraldi txarrarekin, gazte gunean).

27 OSTEAGUNA

19:00 Ospa! Mugimenduak antolatutako hitzaldia. Gaztetxean.

28 OSTIRALA

20:00 Altsasukoak aske elkarretaratzea. Udaletxearen parean.

20:00 Elektrokela Elektrotxaranga

altsasuarren erronda. Herrian zehar.

22:00 Kultur 2020. Todos los Secretos Los Secretos taldearen tributua. Iortia zabalgunean.

29 LARUNBATA

OSPA EGUNA

13:00 Herri muralaren mustutzea. Arkangoako plazeletan.

15:00 Bazkaria.

19:00 Kalejira. Plazatik.

30 OSTIRALA

06:00 Gaintza-Balerdi-Gaintza egun erdiko ibilaldia egingen du Altsasuko Mendigoizaleak taldeak.

19:00 Nafarroako Zirku jaialdia. Circofanic konpainiaren *Tea time* ikuskizuna. Iortia zabalgunean.

20:00 Nafarroako Zirku jaialdia. Antonio Vargas konpainiaren *Kañas* ikuskizuna. Iortia zabalgunean.

20:00 Euskal presoak, Euskal Herria elkarretaratzea. Plazan.

20:15 Nafarroako zirku jaialdia. La Banda antzerki eta zirku taldearen *Kimera* ikuskizuna. Iortia zabalgunean.

31 ASTELEHENA

12:00 Pentsio duinen alde. Sakanako Jubilatuen eta Pentsiodunen Koordinakundearen kontzentrazioa.



Altsasuko Dendarien Elkartea
Asociación de Comerciantes de Alsasua

ALLIANZ SEGUROS (HNOS. SAYAS), ASENSIO MODA, CAFÉS AKEITA, CALZADOS BENGOTXEA, CARNICERÍA SORKUNDE, CORTINAS IZARA, DEPORTES LEZEA, EGIN MODA, ELECTRICIDAD RAMOS, ELECTRODOMÉSTICOS RAMOS, FLORISTERÍA LOREA, FRUTERÍA CRISTINA, GAUTXORI TABERNA, GERTU SAKANA, IKER KIROLAK, INMOBILIARIA AGURAIN, IULENE, JOSELEN MODA, JOYERÍA NORTE, KATUKA, LARKA EMAKUMEA GIZONA, LASA KIROLAK, LIBURUNDA PAPELERIA, LIBRERIA ARKATZ LIBURUDENDA, MARI CARMEN, MARIGORRI, ML MODA HOMBRE, ML MODA MUJER, MUEBLES SANTA CRUZ, OPTIKA SAKANA, PINPILINPAUXA MODA INFANTIL, SARE CALZADOS, TU TIENDA ESPECIAL, TXARTEL KOPIA, TXIKITXO, XAGU INFORMATIKA



tú das vida a las calles
zurekin kaleak bizirik
COMERCIOS DE NAVARRA_NAFARROAKO DENDAK

Nafar Gobernuak
diruz lagundutako ekimena





Parke bat baino askoz ere gehiago

Argi dute olaztiarrek Olazti sarreran dagoen Memoria Historikoaren Parkeak sekulako bizitza ematen diola herriari. Jolasteko, lasai egoteko eta bazkariak edo meriendak egiteko toki bikaina da, Urbasako ikuspegi ederrekin

Maidar Betelu Ganboa

Altsasutik Olaztira sartu eta berehala, ezkerrean, parke zoragarria dago. Olaztiarrek parkea beste izen bat erabiliz izendatzen zuten –parkea, Clinker parkea, Kasinoko parkea edo Sutegi parkea– baina 2016an Memoria Historikoaren Parkea izen ofiziala hartu zuen, Gerrate Zibileko biktimak gogoan. Primerako eremu zabalean, zuhaitzen itzalean jolasten aritzeko zelai paregabea

du, haurrendako parkea, rokodromoa, skate pista txikia eta bapo bazkaltzeko sutegia eta mahai luzea, aterpean. Olaztiarrendako herriko bilgune garrantzitsuetako bat da.

Cementoseko nagusien eta langileen parkea

1903an Cementos Portland sortu zen, eta 1905ean hasi zen Olaztiko lantegiko produkzioa. 1923an Cementos Portland Valderrivas tal-

dea sortu zen, eta urteekin estatuko enpresa garrantzitsuenetako bat bilakatu zen. Cementosek Olaztiko herri sarreran eremu zabala zuen; egungo parkea. Eremu hesitua eta itxia zen. 1964 urtean Fernando Redon eta Javier Guibert arkitekto ezagunek Clinker Club sortu zuten bertan, abangoardiako eraikina. Cementosendako langileendako jatetxe eta taberna gisa egin zuten.

Garai haietan, olaztiarrek ez zuten parkeaz gozatzen. "Hesituta zegoen eta zuhaixkek ez omen zuten barruko ikusten uzten. Ezin zen sartu. Guztia zen Cementoseko jabeena, Sutegi elkarte –egungo ludoteka– izan ezik. Egun, Sutegi klubak kirol talde bezala lanean jarraitzen du, baina elkarte bezala aspaldi desagertu zen. Haren kudeaketa Olaztiko Udalaren esku geratu zen aspal-di, eta udalak bertan ludoteka eta gimnasioa egin zituen" azaldu digu Mitxel Agirre olaztiarrak.

Nonbait, Cementoseko nagusiak Madrilera joan ziren bizitzera, eta, denborarekin, Olaztiko udal jabetza izatera pasa zen parkea. Entzuten da Cementosekoek ez ziotela udalari ordainketaren bat egin, eta, trukean, udalak lurra hartu zituela. Nolanahi, parkea herritarrena izan zen handik aurrera.

Txikitatik jolastu da parkean Mitxel. "Eskolak aurrez aurre genituen, eta atsedenaldiak parkean ematen genituen. Nik zabalik ezagutu dut; garai haietan inork ez zigun sarre-ra debekatzen. Bospasei urte nituela, gogoan dut bertan intxaurrak eta sagarrak hartzen genituela. Erreka txiki bat pasatzen zen, geroago lur azpian sartzen zena, eta karramarroren bat ere egoten zen... Olaztin ez zegoen futbol zelairik, eta parkeko zelaian jokatzen genuen; zoragarria zen. Guretako gure parkea zen, eta gurasoak lasai egoten ziren, hor sartuta geundelako, autoen eta halakoen arriskurik gabe" gogoratzen du Agirrek.

Igerilekuak, parkea, merenderoa eta beste

Igerileku zaharrak eskolen ondoan zeudela aipatu du Mitxelek. "Ura gerriraino heltzen zen, eta hankak freskatzeko eta gutxi gehiagorako balio zuen. 1982 urte inguruan igerileku berriak egin ziren parkean, Clinker tabernatikeskuinera zegoen eremuan. Aldaketa ikusgarria izan zen" gogoratzen du. Ondoren, par-

keari forma ematen hasi zen udala. "2007 urtean merenderoa, barbakoa, aterpea eta mahai luzea egin ziren. Horretaz gain, haurrendako parkea egin zen parkearen sarreran, garai batean Cementoseko langileek saskibaloira jokatzeke zuten pistan. Ondoren, rokodromoa egin zen eta skate pista txikia. 2016 urtean Memoria Historikoaren Parkea izendatu zuten, eta gerrate zibilean sufritu zutenen omenez eskultura jarri zen" azaldu digu Mitxelek.


Parkea sekulakoa da. "Oporretan beste puntaraino joaten gara, eta bertan Urbasako ikuspegi zoragarriak dituen toki ikusgarria dugu. Gasteiztik Iruñera, ez dago halako tokiarik. Lasai egon zaitezke, zerbait hartzeko tokia duzu, eremu ederra eta lasaia da... orduak konturatu gabe pasatzen dira. Denondako proposa da, baina seme-alabak dituztenendako zer esanik ez. Txikia nintzela, eta orain guraso naizela, probetxu handia atera genion eta diogu parkeari. Lasai egon zaitezke, haurrak parkean, edo rokodromoan edo zelaian korrika, arriskurik gabe... eguna ematen duzu bertan" dio Mitxelek.

Merenderoak sekulako bizia eman dio parkeari. "Batek haragia ekarri, besteak ogia eta edaria, eta edozein momentutan antolatzen da afari-merienda. Urtebetetze ospakizun guztiak bertan egiten ditugu, koardilako bazkari-afariak, eta festetako bazkariak, ikastola eta eskolako ospakizunak eta beste ere bertan egiten dira; toki paregabea da, segurua; haurrak lasai egon daitezke eta igerilekuak alboan dituzte; eta guztia, herri erdian" dio Mitxelek. Parkea oso garrantzitsua da herritarrendako. "Parke honek bizitza asko ematen dio herriari. Bestalde, aipatu behar da ere Olaztiko hiru plazak oinezkoendako jarri dituztela; gaur egun, parkean edo plazetan, bikain egon daiteke, lasai" nabarmendu du Mitxelek.


Iulene
IREKIERA
Gaur, uztailak 31, denda berria mustuko dugu
Altsasun, Erkuden kalean gaude
Zatoz!
f Iulene Denda Altsasu
i Iulenedenda
686 217 781
erkuden kalea 4 altsasu


ORLEGHY
-RENOVABLES-
Biomasa galdarak
Geotermia eta aerotermia
Instalazio eta mantentze zerbitzua
Pellet salmenta on-line
Tlf y Fax: 948 562 604
Gipuzkoa kalea, 17 - Altsasu
www.orieghy.com
info@orieghy.com


Pimpilinpauza
Haurrentzako moda
Isidoro Melero, 25 behea
Altsasu
948 56 44 52
f Pimpilinpauza Altsasu


HIZKUNTZAK EGITEN GAITU GU,
ETA GUK EGITEN DUGU HIZKUNTZA.
ELKARREN LEKUKO GARA.
AMETS ARZALLUS
AUR: DAVID CALDERON
Mank
BANKA
SOLERAKA, BERNARDO JOK

Erkuden Ruiz Barroso

Gaztelak Nafarroako Erresuma hartu zuen arte, erreinuak ehun gaztelu baino gehiago zituen. Haietako batzuk gotorlekuak ziren, eta babeserako erabiltzen zituzten; beste batzuk, gainera, errege eta erreginen bizitokiak ziren. Sakanako defentsa sistema hainbat gazteluk osatzen zuten: Ziordikoa, Urdiaingo Irurita, Etxarri Aranazko dorrea, Uharte Arakilgoa, Etxeberriko eta Irurtzungo Biazpeko Aixita eta Oskiako Ororregi gaztelua. Zaila da gaur egun Erdi Aroko Sakana hura irudikatzea; izan ere, 1512. urtean Gaztelako tropak Sakanatik sartu, eta Nafarroako Erreina konkistatu zuten. Defentsa sistema osatzen zuten gazteluen gainbehera izan zen. Beraz, lur azpiko aztarnak baino ez dira gelditzen. Ziordikoan, ordea, eraikina bisitatzeko aukera dago; zati bat bada ere.

Ibaiaren eta zuhaitzen soinuek ingurugiroarekin bat egiten dute, toki paregabea bihurtuz. Ziordia herria pasata, zubiaren azpian, dago gaztelua. Eraikinak denborari borroka gainditu dio, gerrate askoren protagonista izan ondoren. Fernando Fusteren hitzetan, gaztelua baino gehiago, Ziordiko gotorlekuari buruz hitz egin behar da. XIII. mendekoa da, 1212. urte ingurukoa, Antso Azkarraren agintean egindakoa. Gaztelua eta eliza garai berekoak direla aipatu du Fustek. Gaztelarekiko muga indartzeko behararen ondorioz eraiki zuten gotorlekua. 1200 urtera arte, aldiz, inguru honetan Ayuka herria zegoen. Herri hartan bertakoak bizi ziren, eta Ziordian erreinuko zaldunak eta aberatsak bizi ziren, Fustek egin dituen ikerketen arabera.

Erreinuaren defentsarako babes harresia eraiki zuten Ziordian. 2,5 metroko zabalera zuten harlanduzko hormak zituen, argi



Iraganaren aztarnak

Arakil ibaiaren ondoan, zuhaitzen artean erdi ezkutaturik, Nafarroako erreinua defendatzeko erabili zuten Ziordiko gaztelua dago. Atsedean hartzeko eta aisialdirako tokia da orain, historiari inguratuta

hutsunerik gabe, eta ate bakarra zeukan sartzeko. Gotorlekuak gaur egungo Ziordia osoa hartzen zuela uste du Fustek. 1444. urtean Gaztelaren kontrako defentsan gotorlekuak 400 gizon hartu zituela azaldu du. "Ziordiko gotorlekua garrantzitsua izan zen, eta gaztelarrek hamar urtez bahitu zuten".

500 urte

XV. mendean Nafarroako Erregeak Lanzarot Ziordiko jaunari mugak eta mendiak defendatzeko boterea ematen zion. Izan ere, Sakanako defentsa harresi horri "gaizkileen muga" deitzen zitzaion. Egindako lanaren ordainaz, erregeak Ziordiko eraikin "guztiak" eman zizkiola azaldu du Fustek. Behin Gaztelak Nafarroa konkistatuta, 1591. urtean, Antonio de Gongorak gazteluaren jabetza eskatu zuen; eta, azkenean, epaiketen ondorioz, arrazoia eman zioten. Hortaz, gaztelua Gongora familiarena bihurtu zen.

Hala ere, Gaztelak Nafarroako Erresuma konkistatu ondoren, Nafarroako gazteluak suntsitzeko agindua eman zuen. Horregatik, gaur egun gutxi dira gaztelu eta gotorleku horien aztarnak. 100 gaztelu baino gehiago ziren garai hartan. 2012. urtean, konkistaren 500. urteurrena betetzen zela, Nafarroa Bizirik elkarteak gazteluen berri emateko kanpaina egin zuen. Horren barruan, gazteluak berreskuratzeko eta lurzoruko lanak egin dira, besteak beste, Urdiaingo Irurita eta Irurtzungo Aixitako gazteluetan arkeologia indusketak egiten ari dira. Gainera, gazteluen tokietan omenaldiak egin zituzten, eta mugariak jarri zituzten.

Ziordiko gaztelua aukeratu zuten Sakanako 500. urteurren ekitaldia egiteko. Atearen aurrean bere handitasunaren historia kontatzen duen plaka dago. Gaur egun, aisialdirako eta ekitaldiak egiteko toki paregabea bihurtu da.



OLATZAGUTIA

ABUZZTUA

7 OSTIRALA

22:00 Zinema. Futbito pistana (eguraldi txarrekin, frontoian).

28 OSTIRALA

20:00 Antipasti antzerkia. Futbito pistana (eguraldi txarrekin, frontoian).



AGENDA

ZIORDIA

ABUZZTUA

15 LARUNBATA

10:00-14:00 Markel Carmona Lesakaren aldeko III. Elkartasun Saskibaloitxapelketa: Hiru hiruren kontrako txapelketa, 10 eta 15 urteko gazteboendako. Aurrera Markelekin elkartaren aldeko zozketako txartelak salduko dira. Saskibaloitxelaian.

21 OSTIRALA

Egun osoa. Ziordiko Elkartasun Herri Lasterketa birtuala. Parte hartzeko dortsala <https://labur.eus/Ocom5> webgunean eskuratu daiteke (5 euro Paris 365 jantoki solidarioarendako eta nork bere herrian egindako ibilbidearen eta kilometroen berri #Ziordia2020 traolaren bidez eman beharko du. Opariak zozketatuko dira. Bestalde, Aurrera Markelekin eta Rett sindromea elkarrean aldeko txartelen zozketa egingo da. Antolatzailea: Ziordia Running taldea.



Sukaldaritza berritzailea imajinatzen ez duzun espazioan!



uribekosta@casademarinos.es



946 77 44 78



www.casademarinos.es



IRAILA

3 OSTEGUNA

Nafarroako neska* gazteen udalekuak.



4 OSTIRALA

Nafarroako neska* gazteen udalekuak.

ZORION AGURRAK



Eukene Goñi Andueza
Zorionak Eukene!
Abuztuaren 12an 11
urte beteko tuzuz. Ongi
pasa zu egunien!
Muxuk familian partes!




Harriet Artieda Diez
Zorionak gure
abenturazale ausartari!
Erdiak eta beste
haunbeste betetzen
dituzun hontan, muxu tona
batzuk etzekoan partes.
Maite zaitugu!!




Maddi Gastaminza Betelu
Zorionak Maddi,
etzekoan partes. Segi
irribarre egiten! Muxu
handi bat!

EGURALDIA ASTEBURUAN


Ostirala, 31




Igandea, 2



Larunbata, 1



Astelehena, 3



JAIOTZAK

- **Garaine Rubio Ayanz**, uztailaren 15ean Etxarrehen
- **Aimar Birabent Aizporea**, uztailaren 25ean Altsasun

HERIOTZAK

- **Carmen Jimenez Sanchez**, uztailaren 25ean Altsasun
- **Maria Ines Lizarraga Mendinueta**, uztailaren 27an Lakuntzan

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN
DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

IRAGARKI SAILKATUAK

OHARRA

Odol emateak Altsasun:
Abuztuaren 11, 12 eta
13an 17:00etatik 20:30era,
14an 9:30tik 13:00etara.

Odol emateak Arbizon:
Abuztuaren 31n 17:00etatik
20:30era

Xalao Telebista Euskal City saio berrirako jende bila gabiltza: Saio bakoitzaren helburua euskara sustatzea da eta Nafarroan dauden egoera desberdinak plazaratu nahi dira. Elkarriketatzaile bat eta bi gonbidatu, zeinak herri desberdinetakoak izanik beren herriko euskararen egoerari buruz, COVID-19aren eragina buruz eta hemendik aurrerako etorkizunari buruz hitz egingo duten. Norbait prest egongo balitz, gurekin harremanetan jarri xaloamagazina@gmail.com helbidera idatziz, 948 59 05 57 / 689 093 181 / 644 834 740 telefonoetara deituz. Animatu eta parte hartu!

Mank ur kontagailuen irakurketa etxeko etxe egiten hasiko da: Agorrrilaren 10etik 21era Irurtzun, Lakuntzan, Arbizon, Bakaikun, Iturmendin, Urdiainen eta Olatzagutian ibiliko dira. Etxeak etxean opatzen ez dituzten kasuetan ohar bat utziko zaie irakurketa Ur Zerbitzuari jakinarazteko eskatuz, 948 464 867 telefonoan, 663 399 732 Whatsappean edo ura@sakana-mank.eus helbidean. Kontagailuan, komaren aurretik dauden beltzeko zen-

bakiak dira eman behar direnak.

OPATUTAKOAK

Armani markako beturreko graduatuak topatuta Etxarri Aranazko plazan maiatzeko azken asteburuan. Deitu 630 49 08 44.

Erreka markako urrutiko agintea aurkituta, Etxarritik Lizarrustirako bidean. Galdutako baduzu, deitu 948 564 275 telefonoa.

Haur baten bizikleta topatu dugu: Etxarri Aranatzko Bergara kalean, Pjmask gorria eta lau gorpilduna. Zurea bada deitu 948 564 275 telefonoa.

Elkartasunezko saskibaloi topaketa: Ziordian jokatu da agorrrilaren 15ean, 10:00etatik 14:00etara. 10 eta 15 urte arteko gazteboendako da. Izen ematea doakoa da, baina antolakuntzan gomendatzen du Markelkin Aurrera elkartearen zozketarako txartelak erostea. Gaixotasun arraroa du Markelkin eta munduan bi kasu besterik ez daude. Izena emateko hots egin 620 064 534 telefonora (Jose Ramon).

Elkartasun lasterketa birtuala: Ziordiko Running Taldeak antolatuta du eta agorrrilaren 29an izanen da. Nork bere herrian edo hirian korrika egin behar du eta gero egin dako km-en berri sare sozialetan #ziordia2020 hastag-a erabiliz zabaldu behar du. Izen ematea https://labur.eus/Ocom5 web orriaren bidez egin behar da. Gutxienezko

kopurua 5 euro da. Jasotzen den diru guztia Paris 365 jangela sozialetarako izanen da. Egun berean Dravet fundazioa, Markelkin Aurrera eta Rett sindromea Espainiako Elkartearen aldeko zozketak egingen dira. Haien webguneetan eta sare sozialetan ematen dute zozketen berri. Eraikunde bakoitzak ditu txartelak eta bakoitza euro baten truke erosi daiteke. Guztira 100 bat sari zozketatuko dira

Arropa biketa: Etxarri Aranazko boluntario taldeak arropa Elizkorta kaleko bere egoitzan jasotzen du astelehenean, 17:00etatik 18:30era. Egoera onean dagoen arropa eraman behar da, garbi dagoena. Derrigorrezkoa da maskarekin sartzea.

Mentore bila Altsasun: Gazte migranteekin egon nahi duten pertsonen bila gabiltza: Astelehenean, ordutegi malgua. Sei elkarteak (Iritsi berriak diren nerabeen harreraren, dolu migratorioaren laguntzean eta gizarteratean espezializatutako zerbitzuak) Interesa duenak 948 239 739 edo 673 329 449 telefonoetara hots egin dezake, edo gestorazional@asociacionsei.org e-postara idatzi dezake. www.asociacionsei.org, informazio guztia dago. www.iragarkilaburak.eus

ESKELA



Feliciano Lizarraga Liciaga

—Goian bego—

Iruñean hil zen 2020ko uztailaren 24an, 88 urte zituela, elizakoak eta Aita Santuaren bedeinkapena hartu ondoren.

Bere senarra, Evaristo Ansotegui; seme-alabak, Dori eta Iñaki Vélez (†), Luis eta Pili Yeregui, Juanfran eta Camino Razkin, Valen eta Tte Jaka; bilobak, Julene eta Gaizka, Jon eta Ainara, Alain, Andrea, Adriana, Ian; birbiloba, Nahia; anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak eta gainerako ahaideak

Etxarri Aranatz

OROIGARRIA



Gorka Echarri Soto

IV. Urteurrena
Beti gure bihotzetan
Asko maite zaitugu



IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUI, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk
zeinetan norbait
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU **ETXARRI ARANATZ**
Santa Cruz, 6 Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70
🐦 @Grupolrache
📘 Grupolrache
🌐 www.tanatoriosirache.es

"Kalesako paseoak zoragarriak dira"

Lucia Villar Oteiza animalien eta, bereziki, zaldien maitale amorratua da. Zaldiak ditu, eta zaldian ibiltzeaz gain, kalesan ibilaldiak antolatzen ditu Hiriberrin eta Aralarko paraje zoragarrietan barna

Maidar Betelu Ganboa HIRIBERRI

1 Txikitatik maite omen dituzu animaliak.

Bai, izugarri. Txikitari nire ametsa albaitari izatea zen. Gurasoek abeletxea dute, eta beti izan ditugu abereak. Aitonak ere zaldiak izan zituen, eta nik uste dut hori odolean eramaten dela.

2 Noiz hasi zinen zaldian ibiltzen?

Jaunartzea egitean, gurasoek Zolinako hipikara eraman ninduten, anai-arrebekin batera, hipika klaseak hartzera. Niri mundua zabaldu zitzaidan. Ama zoratuta ibiltzen zen ordutegiekin, eta klaseak utzi genituen. Nik hipikara joan nahi nuela esaten nien; aitak, kokoteraino, DBHko 1. mailako ikasketak ongi ateratzen banituen, zaldi bat erosiko zidala zinegin zidan. Guztia bikain gauditu, eta behor bat eta zaldi bat erosi zituen aitak. Behorrari Azafran izena jarri nion. Azafran ernari zegoen, eta, handik gutxira, behoka jaio zen, Gretel. Zaldiei buruz gehien irakatsi didana Azafran izan da; mundu honek guztiz harrapatu nau.

3 Ikasketak ere zaldien mundura bideratu dituzu?



Lucia Villar kalesan, bidaiari gazteekin. UTZITAKOA

Erdi Mailako Administrazioako ikasketak egiten hasi nintzen, eta aldi berean zaldien psikologia terapeutikoa eta zaldi albaitari laguntzaile tekniko gradu bikoitza egin nuen. Bere garaian, zaldien seinaleak interpretatzen

ikasteko klaseak eman nizkien haurrei. Zaldiek nola "hitz egiten" duten irakasten nien. Egun, Arbizuko Agotzainan lan egiten dut, harreraren. Aldi berean, zaldi kalesan ibilbide turistikoak gidatzen ditut, eta paseoak egiten ditut.

4 Zaldiz ibiltzetik, kalesa batean paseoak egitera. Nola eman zenuen salto hori?

Zaldi bat ekartzea ari ginen aztertzen etxean. Errioxako gazte batzuek espainiar arrazako zaldiak eramaten dituzte Holandara, eta handik zaldi frisiarrak ekartzen dituzte. Eurengana jo, eta moxal frisiar batzuk ekarri zituzten. Haietako zaldiko bat erosi zuen aitak, 2016an. Ahizpak Morey izen jarrizion. Frisiarrak gurdi zaldiak dira, baina, aldi berean, zela abereak, hau da, zaldi gainean ibil daiteke.

5 Non erosi zenuen kalesa edo zaldi-gurdia?

Sevillatik ekarri genuen. Morey trebatu zuenak kudeatu zigun kalesaren erosketa. Zaldi gurdia eta zaldi gurdia lotzeko beharrezko lanabes guztiak ekarri zizkigun, eta ni Larderora (Logroño) joan nintzen, zaldi gurdia lotzeko tekniken ikastaroa jasotzera.

6 Zaila da zaldia kalesara lotzea?

Badu berea. Zaldiari beharrezko lanabesa guztiak jarri behar zaizkio, eta ongi. Zerbait gaizki lotuz gero, martxan zaudenean aska daiteke, eta sekulakoa gertatu. Lehendabiziko aldian ordu eta erdi eman nuen guztia jartzten. Egun 10 minutu pasatxotan egiten dut.

7 Noiz eman zenuen kalesan paseoak eskaintzeko saltoa?

2018an, Lakuntzako azokan. Kalesa erakusteko gogoia nuen. Aurretik, ezkontzaren batera joateko deitu ninduten, eta jendeak kalesako paseoak oso gustuko zituela ikusita, Lakuntzako azokan estreinatu nintzen. Aitaren urtebetetzea zen, eta kalesak izan

zuen harrera beroa ikusita, hori baino opari hoberik ezin izan nion egin. Haurrek nola gozatu zuten ikusteak izugarri poztu ninduen. Ongi egindako lanaren sentipena izan nuen.

8 Kalesan paseo bat eman nahi duenak zer egin behar du?

Nirekin harremanetan jarri, eta hitzordua lotuko dugu. Ekitaldi berezi bat ez bada, Hiriberrin egiten diet harrera, etxean. Zaldia kalesara lotu, kalesara igo, eta abiatzen gara. Ordu eta ordu erdiko paseoa izaten da. Ihabar aldera abiatzen gara, eta gero Aralarren barneratzen gara. Paseo ikusgarria da, mendiz inguratuta. Mendiko koloreak ikustea zoragarria da; eguzkiak laguntzen badu, are gehiago. Paisaiak izugarri laguntzen du, Sakana oso ederra delako.

9 Kalesan igo den jendeak zer dio? Gustuko dute?

Jendea asko gustatzen zaio, ez delako ohiko esperientzia bat. Asko erlaxatzen dira. Eta lagunekin edo familiarrekin egiten baduzu, are gehiago. Jendea pozik geratzen da, eta gustura egon direla ikusteak asetzen nau.

10 Nongoak dira bezeroak?

Sakanakoak, Iruñekoak, Bartzelonakoak... denetatik, baina ingurukoak gehiago. Urtebetetze opari bat dela, esperientzia bizi nahi dutela... denetatik.

11 Zaldiez disfrutatzen jarraitzeko asmotan?

Jakina! Gogotsu nago, ilusioz gainezka, paseoak ematera etortzen direnak gozatzen ikusten ditudalako. Ea zer moduz doan dena!

Abuztuaren 1etik 31ra

Oporretan gande

gk

DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA

Foru plaza, 23-1. Altsasu
948 564 275 • info@gkomunikazioa.eus